

TESTU BATERATUA

OHARRA: DOKUMENTUAK INFORMAZIO IZAERA DU ETA EZ DU BALIO JURIDIKORIK

Aurkibidea

ZIOEN AZALPENA

I. TITULUA.UDALA ERATZEA

I. kapitulua.Udala eratzea

1. art.Udala eratzea
2. art.Eratze bilkura
3. art.Adin mahaia osatzea
4. art.Izendapen egiaztagiria ontzat ematea
5. art.Zinegotziek zin edo promes egitea
6. art.Korporazioa eratutzat jotzea

II. kapitulua.Alkatea: Aukeratzea eta karguaz jabetzea.

7. art.Alkatea aukeratzea
8. art.Alkateak zin edo promes egitea eta karguaz jabetzea

II. TITULUA.ZINEGOTZIAK

I. kapitulua.Izaera, eskubideak eta eginbeharrak

9. art.Zinegotzi tasuna bereganatzea, bertan behera geratzea eta galtzea
10. art.Interesen errolda
11. art.Eskubideak eta eginbeharrak
12. art.Eskubide ekonomikoak
13. art.Informazio eskubidea
14. art.Bilkuretara joan beharra
15. art.Bilkurara ezin joana jakinarazi beharra
16. art.Abstenitu beharra. Arbuiatzea

II. kapitulua.Erantzukizunak eta diziiplina

17. art.Erantzukizunak
18. art.Bilkurako diziiplina
19. art.Udal egoitzetako diziiplina
20. art.Kanporatzea
21. art.Zigorra
22. art.Delitua

III. TITULUA.UDAL TALDE POLITIKOAK

I. kapitulua.Eratzea

23. art.Eratzea

24. art.Nola eratu eta bozeramailea izendatu

II. kapitulua.Giza eta gauza baliabideak

25. art.Ekonomi baliabideak

26. art.Jarduteko baliabideak izendatzea

III. kapitulua.Kide atxiki gabeak

27. art.Definizioa

28. art.Eskubideak

IV. TITULUA.UDALBATZAREN ANTOLAMENDUA

I. kapitulua.Osaketa eta eskumenak

29. art.Eratzea

30. art.Eskumenak

II. kapitulua.Udalbatzaren lehendakaria

31. art.Eginkizunak

32. art.Lehendakaritza inoren esku uztea

33. art.Ordezkatza

III. kapitulua.Udalbatzaren idazkari nagusia

34. art.Izendatzea eta jardutea

35. art.Eginkizunak

36. art.Bestelako eginkizunak

37. art.Egitura eta horniak

38. art.Udalbatza Errolda

39. art.Txostenak ematea

IV. kapitulua.Bozeramaleen Batzordea

40. art.Izaera

41. art.Osaketa

42. art.Eginkizunak

43. art.Lehendakaritza

44. art.Deialdia

45. art.Deitzeko era

46. art.Bilkura egiteko quoruma

47. art.Bozketa

48. art.Bilkura araubidea

49. art.Kide ez diren partaideak eta aktak

V. TITULUA.UDALBATZAREN JARDUNBIDEA

I. kapitulua. Bilkurak

1. atala. Bilkura motak

50. art.Bilkura motak

51. art.Ohiko bilkurak

52. art.Ohiz kanpoko bilkurak

- 53. art.Zinegotziek eskaturiko ohiz kanpoko bilkurak
- 54. art.Ohiz kanpoko bilkura presazkoa
- 55. art.Politika orokorra adierazteko urtean behingo bilkura ohiz kanpoko
- 56. art.Gobernua bertaratzea
- 57. art.Egoitza
- 58. art.Bilkurek jendaurrekoak izan beharra
- 59. art.Bilkuretako jokabidea
- 60. art.Iraupena

2. atala.Deialdia eta gai zerrenda

- 61. art.Deialdia
- 62. art.Banaketa
- 63. art.Aztergaietako dokumentuak
- 64. art.Gai zerrenda
- 65. art.Irizpenik gabeko aztergaiak
- 66. art.Egitura
- 67. art.Ekimenak kalifikatzea

3. atala.Bilkuren bilakabidea

- 68. art.Quoruma
- 69. art.Aurreko bilkura akta onartzea
- 70. art.Aztergai hurrenkera
- 71. art.Zerrendatik kendutako edo mahai gainean utzitako aztergaiak
- 72. art.Deialdian ez diren aztergaiak

II. kapitulua.Eztabaidak

- 73. art.Bideratzea
- 74. art.Eztabaidatu beharreko eta beharrik gabeko aztergaiak
- 75. art.Abstentzioagatik ez egotea
- 76. art.Nola bideratu eztabaida
- 77. art.Aipuen ondorioz parte hartzea
- 78. art.Orden eragozpena
- 79. art.Udalbatzaren idazkari nagusiak hitza hartzea

III. kapitulua.Bozketa

- 80. art.Botoaren izaera eta zentzua
- 81. art.Bozketa motak
- 82. art.Bozkatze sistema
- 83. art.Erabakiak hartzeko quoruma
- 84. art.Unea eta era
- 85. art.Botoa azaltzea

IV. kapitulua.Aktak eta Bilkura Egunerokoa

- 86. art.Aktak
- 87. art.Bilkura Egunerokoa

V. kapitulua.Diziplina

88. art.Hizpidea erabiltzea

89. art.Behar bezala jokatzeko eskeak

VI. TITULUA.NOLA HARTU ERABAKIAK

I. kapitulua.Proposamen eta proposizioak

90. art.Ekimena

91. art.Aurkeztea

92. art.Irizpen beharra

II. kapitulua.Zuzenketak

1. atala.Motak

93. art.Motak

94. art.Zuzenketa adostuak

2. atala.Nola izapidetu eta eztabaidatu zuzenketak

95. art.Izapidetzea

96. art.Eztabaida

VII. TITULUA.INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROL TRESNAK

I. kapitulua.Interpelazio eta mozioak

97. art.Interpelazioak

98. art.Mozioak

99. art.Gaitzestea eta atzera batzordera bidaltzea

II. kapitulua.Udalbatzaren aurrean agertzea

110. art.Helburua eta hartzailea

101. art.Gaitzestea eta atzera batzordera bidaltzea

102. art.Aurkeztea eta gai zerrendan sartzea

103. art.Bilakabidea

III. kapitulua.Erakunde adierazpenak

104. art.Esparrua eta aurkezpena

IV. kapitulua.Zentsura mozioa eta konfiantza galdea

105. art.Zentsura mozioa

106. art.Konfiantza galdea

VIII. TITULUA.NOLA ONARTU ARAUAK

I. kapitulua.Xedapen orokorrak

107. artikulua: Aplikazio eremua

108. art.Arautze ekimena

109. art.Epeak

II. kapitulua.Proiektuak

110. art.Proiektu dokumentazioa

111. art.Hasi bidez onartzea

112. art.Jendaurreko informazioa

113. art.Alegaziorik ezean behin betiko onartzea

114. art.Alegazioak daudela behin betiko onartzea

III. kapitulua.Arautze proposamenak

115. art.Arautze proposamenak

IV. kapitulua.Herritarren ekimena

116. art.Bidaltzea

V. kapitulua.Aurrekontuak

117. art.Araubidea eta lehentasunak

118. art.Proiektua aurkeztea

119. art.Aurrekonturako zuzenketak

120. art.Zatiko zuzenketak

121. art.Ordezte edo eranste zuzenketak

122. art.Zuzenketak izapidetzea

123. art.Eztabaida

IX. TITULUA.BATZORDEAK

I. kapitulua.Xedapen komunak

124. art.Motak

125. art.Antolamendua

126. art.Jarduna

II. kapitulua.Batzorde iraunkorrak

127. art.Motak, eginkizunak eta maiztasuna

128. art.Eratze erabakia

129. art.Eskumena

130. art.Izendatzea

131. art.Egitura

132. art.Erabaki irizpena

133. art.Batzordearen erabakiak

134. art.Interpelazioak

135. art.Batzordean ahoz erantzun beharreko galderak

136. art.Batzordera agertzea

137. art.Eskaerak edo iradokizunak

138. art.Ekimenak aurkeztea eta kalifikatzea

III. kapitulua.Kontuen Batzorde Berezia

139. art.Arautzea

140. art.Eginkizunak

IV. kapitulua.Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia

141. art.Eraketa eta eginkizunak

142. art.Udal administrazioarekiko harremanak

V. kapitulua.Aurrekontua Kontrolatzeko Batzorde Berezia

143. art.Arautzea

144. art.Eginkizunak

VI. kapitulua.Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia

145. art.Izaera eta helburua

146. art.Eskumenak

147. art.Urteko oroitidazkia

VII. kapitulua.Batzorde aldi baterakoak eta ponentziak

148. art.Sorrera

149. art.Ikerketa batzordeak

150. art.Ponentziak

X. TITULUA.UDALA BESTE ENTITATE BATZUETAN ORDEZKATZEA

151. art.Organo eskuduna

152. art.Nola izendatu

153. art.Iraupena

154. art.Talde politikoak

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Auzian ordezkatzea eta defendatzea

Bigarrena. Herritar partaidetza

Hirugarrena. Ebazpenak

Laugarrena. Bilkura Egunerokoa

Bosgarrena. Toki erakundearen antolamendu, funtzionamendu eta erregimen juridikoaren Araudia aplikatzea

Seigarrena. Udalez gaindiko entitateak

Zazpigarrena. Administrazio kontseiluak

Zortzigarrena. Kaleak Izendatzeko Batzordea

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Zereginak betetzea.

Bigarrena. Batzorde iraunkorren lehendakaria eta lehendakariordea

XEDAPEN INDAR-KENTZAILE BAKARRA

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Jakinaraztea, argitaratzea eta indarrean sartzea

ZIOEN AZALPENA

Tokiko gobernuaren eguneratzeko neurriak arautzen zituen abenduaren 16ko 57/2003 Legea indarrean sartu izanak aldaketa sakon-sakona ekarri die toki administrazioaren antolamenduari eta jardunari, batez ere «Populazio handiko udalerri» deritzenei, hain zuzen ere, geure hiriak biltzen duen ezaugarria, 175.000 biztanleak gainditzen dituen hiriburua delako.

Toki Araubidearen aldaketa horrek eduki batzuk aldatu zizkion apirilaren 2ko 7/1995 Legeari (LBRL), eta aldaketok Lege hark xedaturiko eredu orokor, oinarritzko eta bateratuan eragin ez ezik, populazio handiko udalerriari aplikatu beharreko berezitasun organiko eta funtzional etako araubide berezia ere ezartzen du.

Populazio handiko udalerriari 57/2003 Legeak xedaturiko antolamendu araubide berriaren muina egitura exekutibo eta administratiboak ordezkari organotik bereiztea da. Antolamendu bikoiztasunean oinarrituriko gobernu era sartzeko da, eta horrek maila ezberdinetan jartzen ditu alkatea eta Gobernu Batzordea –organo betearazle eta gestio gileak– eta Udalbatza –fiskalizazio eta kontrol organoa–. Azken buruan, Lege honen bitartez hiri handien eremura erakarri nahi izan dute Estatuaren eta autonomia erkidegoen eremuan dagoeneko indarrean den ereduak, bere bitartez hiriak era eraginkorrean gobernatzea lortu ahal izateko.

Eredu berri horrek behartuta, herritarrek hiriaren gobernuan duten ordezkari politikoaren organorik gorenari, hau da, Udalbatzari, tresna arautzaile bat eman beharra dago, jarduteko oinarritzko arauak

jasotzeaz gain, eztabaida eta fiskalizazio ahalmenak garatu ahal izateko, exekutibo indartu baten ekintzabidea sakonago kontrolatu ahal izateko.

Hartarako, eta 7/1985 Legeko 122.3 artikuluan xedatutakoa (57/2003 Legeak emandako erredakzioaren arabera) betetzeko, azken lege horretako Lehenengo Xedapen Iragankorraren edukiez bat, honako Araudi hau prestatu da, bere bitartez Udalbatzaren jarduera arautzeko. Gainera, araudi honek Udalbatzaren batzordeen eta Bozeramaleen Batzordearen jarduera ere arautzen du.

Araudiak 154. artikulua dauzka, 10 titulutan, zortzi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indar-kentzaile bakarra eta azken xedapen bat.

I. IZENBURUA

UDALA ERATZEA

I. KAPITULUA. UDALA ERATZEA

1. artikulua. Udala eratzea.

1.Udal Korporazioa jendaurreko saioan eratzen da udal hauteskundeak egin eta handik hogeita bat egunera, zinegotzi hautatuak izendatzearen aurkako hauteskunde administrazioarekiko errekurtsioa aurkeztu ez bada, hala gertatuz gero, hauteskundeen osteko berrogeigarren egunean eratuko baita.

2.Zinegotzi hautatuek izendapen egiaztagiriak udaleko Idazkaritza Nagusian aurkeztu beharko dituzte eratze bilkura baino bost egun lehenago, gutxienez.

3.Egun tarte bera dela, zinegotzi hautatuek Idazkaritza Nagusian ondasun eta jardueren adierazpena aurkeztu beharko dute, Interesen Erroldan jasoarazteko, edo egiaztagiri labur eta arrunta, adierazpena Gipuzkoako Foru Aldundiko idazkariari edo Eusko Jaurlaritzako organo eskudunari aurkeztu eta aipatu erakundeok sortutako interesen errolda berezian daudelako egiaztagiria, erroldaren ardura duen funtzionarioak emana.

4.Aurretiko betebeharrak ezinbesteko baldintza izango dira zinegotzi hautatuak beren karguez osorik jabetu ahal izateko.

2. artikulua. Eratze bilkura.

1.Udalbatzaren idazkari nagusiari dagokio, legeak xedaturiko gutxienezko tartearekin, Korporazio berria eratzeke deia egitea, bilkura ordua ere berak ezarriko duela. Ordua zehazteko, galde egingo die zinegotzi hautatuen zerrenda buruei. **Ordua zehazteko bilera egingo da eta bertaratuen boto haztatuaren bidez erabakiko da, gehiengo soilez. Hura lortu ezean, idazkariak erabakiko du.**

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, lodiz nabarmendutakoa gehitzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

2.Eratze bilkurako gai zerrendak honako atal hauek jasoko ditu:

1.Adin mahaia osatzea.

2.Izendapen egiaztagiriak ontzat ematea.

3.Zinegotziek zin edo promes egitea.

4.Korporazioa eratutzat jotzea.

5.Alkatea hautatzea.

6.Alkateak zin edo promes egitea eta, aukeran, kargua bereganatzea.

3. artikulua. Adin mahaia eratzea.

Korporazioa eratu ahal izateko, Adin Mahaia sortuko dute, kide izango direla ekintzan diren hautaturik gazteenak eta zaharrenak, idazkari moduan jardungo duela udal Idazkari Nagusiak.

4. artikulua. Izendapen egiaztagiriak ontzat ematea.

Hautatuek aurkezten dituzten egiaztagiriak edo nortasun agiriak aztertuko ditu Adin Mahaiak, Zonako Hauteskunde Batzordeak bidalitako ziurtagiriak oinarri hartuta.

5. artikulua. Zinegotziek zin edo promes egitea.

Karguaz jabetu eta erabateko izaera hartzeko, hautagai hautatuek, indarreko legeen arabera, Konstituzioari zin edo men egingo diotela adieraziko dute, baita indarreko lege eta araudiek ebatzitako gainerako baldintzak bete ere.

6. artikulua. Korporazioa eratutzat jotzea.

1. Izendapen egiaztagiriak ontzat eman eta zin edo promesak egindakoa, Mahaiak Korporazioa eratutzat joko du zinegotzi hautatuen gehiengo absolutua egonez gero. Bestela, handik bi egunera beste bilkura bat izango da, eta Korporazioa eraturik geratuko da edozenbat zinegotzi dagoela ere.

2. Edozergatik ere Korporazioa eratzerik ez balego, Batzorde Gestorea eratuko da, hauteskunde legediak xedaturikoaren arabera.

II. KAPITULUA. ALKATEA: AUKERATZEA ETA KARGUAZ JABETZEA

7. artikulua. Alkatea aukeratzea.

Korporazioa eratuta, alkatea aukeratuko dute ondoko jardunbidea beteta:

a) Boto paper sekretuaren bidez bozkatzea.

b) Hautagai izateko, zinegotziek zerrenda buru izan behar dute.

c) Haietako batek zinegotzien gehiengo absolutua lortuz gero, alkate hautatutzat joko dute.

d) Haietako batek ere lortzen ez badu aipatu gehiengoa, alkate izendatuko dute Udal Hauteskundeetan herritarren boto gehien lortutako zerrendako burua. Berdinketarik gertatuz gero, zozketaz ebatziko dute.

8. artikulua. Alkateak zin edo promes egitea eta kargua bereganatzea.

1. Alkate izendatutakoa karguaz jabetuko da Udalbatzarren aurrean, karguari zin edo promes eginda eta dagozkion eginbehar eta obligazioak bereganatu ondoren.

2. Karguaz jabetu eta, nahi izanez gero, diskurtso labur bat egindakoa, alkate hautatuak bilkura amaitu dela aldarrikatuko du.

II. TITULUA

ZINEGOTZIAK

I. KAPITULUA. IZAERA, ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

9. artikulua. Zinegotzi tasuna bereganatzea, bertan behera geratzea eta galtzea.

1. Zinegotzi tasunaz, hau da, korporazioko kide izaera bereganatuko dute zinegotzi hautatuek, legeko baldintzak beteta, beren karguez jabetzen direnean.

2. Korporazioko kide izaeraren jabe den zinegotzia eskubide, prerrogatiba eta eginbeharrez gabeturik egongo da auzi ebazpen irmoak hala aginduz gero.

3. Zinegotziak tasuna galduko du honako hauetakoren bat gertatuz gero:

1. Erabaki judizial irmoa, hautespena edo izendapena indargabetzekoa.

2. Hiltzea edo gaitasuna galtzea, azken hau ere erabaki judizial irmoaren bitartez.

3. Agintaldia amaitzea epea iraungi delako, zereginak betetzen iraun dezakeen arren ohiko administrazio gorabeheretan ondorengoa karguaz jabetu arte.

4. Uko egitea, idatziz Udalbatzaren aurrean gauzatu beharrekoa.

5. Bateriaezintasuna, hauteskunde legeek ezarritako baldintza eta suposatuetan.

10. artikulua. Interesen Errolda.

1. Toki Korporazioko kideek bateraezintasuna sor dezaketen arrazoiak gainean eta diru-sarrerak ematen dizkieten zein eman diezazkieketen jarduera guztiei buruzko aitorpena egingo dute.

2. Era berean, beren ondare ondasunen gainean eta edozein eratako sozietateetan duten partaidetzari buruz ere aitorpena egingo dute. Horrekin batera, partaide diren sozietateen informazioa emango dute, bai eta Errenta, Ondare eta, hala badagokie, Sozietateen gaineko zergen likidazioarena ere.

Aitorpen horiek Udalbatzak onartutako ereduetan egingo dira, karguaz jabetu aurretik, kargua uzten denean, agintaldia bukatzean eta gertakariak aldatzen diren bakoitzean.

Ondasun eta jardueren gaineko urteko aitorpenak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira, urtero, eta, nolanahi izanda ere, baita agintaldia bukatzean ere, dagokion batzordeak ezarritako baldintzak beteta.

Aitorpen horiek Interesen Errolda hauetan inskribatuko dira (erroldak publikoak izango dira):

a) Bateriaezintasuna sor dezaketen arrazoei eta diru-sarrerak ematen dizkieten zein eman diezazkieketen jardueri buruzko aitorpenak Udalak eratutako Jardueren Erregistroan inskribatuko dira.

b) Ondasun eta ondare eskubideen gaineko aitorpenak Udalaren Ondare Ondasunen Erroldan inskribatuko dira, dagokion Batzordeak ezarritako baldintzak beteta.

*** 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, artikulua hau berriro idatziko da eta honela geratuko da.**

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

11. artikulua. Eskubideak eta eginbeharrak.

Karguaz jabetu ondoren, Korporazioko kideek bereganatuko dituzte Estatuaren edo Eusko Legebiltzarraren legeek karguari aitortzen dizkieten eskubide eta onurak, eta estu-estu bete beharko dituzte karguari berez datzekion eskubide eta eginbeharrak.

*** 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, bigarren paragrafoa kentzen da.**

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

12. artikulua. Eskubide ekonomikoak.

1. Udalbatzak berak erabakiko du zenbateko lansaria dagokien zinegotziei karguan jarduteagatik.

Lansariak mailakatuko dira dedikazio eta ardura mailak kontuan izanda.

2. Zinegotziek lansaria jasoko dute karguan jardutearen truke dedikazio eskusiboa betetzen dutenean, eta, hala izatekotan, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean izen emanda egongo dira, Udalak arauzko enpresa kuotak ordainduko dituela. Halako lansaririk jasoz gero, ezingo dute kobratu beste administrazio publikoek eta horien mendeko entitate, erakunde edo enpresek ordainduriko bestelako lansaririk, ezta beste jarduerarik gauzatu ere, guztia abenduaren 26ko 53/1984 Legearen xedaturikoaren arabera, administrazio publikoen zerbitzuan Eginkizunak betetzen dituzten langileen bateraezintasunak arautzen dituztenez gero.

3. Zatikiko dedikazioa betetzen duten zinegotziek lansaria jasoko dute lehendakaritza, lehendakariordetza, ordezkaritza eta hala eskatzen duten ardurak betetzen dituztenean, horrelako eginkizunetan benetan emandako denboraren arabera, eta, hala izatekotan, haiek ere dena delako kontzeptuagatik Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean izen emanda egongo dira, Udalak arauzko enpresa kuotak ordainduko dituela. Lansari horiek ezingo dituzte inondik inora gaingitu Estatuaren aurrekontu orokorren legeek xedatzen dituzten mugak.

Zatikiko dedikazioa duten karguak eta horiei dagozkien lansariak zehazteko udalbatzaren erabakiek barne hartuko beharko dute lansariok jaso ahal izateko gutxienezko dedikazioaren erregimena. Administrazio publikoetako eta halakoen mendeko entitate, organismo eta enpresetako langile diren zinegotziek zatiko dedikazioaren truke lansaria jaso dezakete dedikazio hori beren lantokiko ohiko lanaldiz kanpo betez gero, abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 5. artikulua ebatzitakoaren arabera.

4. Dedikazio eskusiborik edo zatikorik ez duten zinegotziek baino ezingo dute dietarik jaso Korporazioaren kide anitzeko organoen bilkuretarik benetan joan izatearen truke, halako organoetako kide badira, Udalbatzak erabakitako kantitatearen arabera.

5.Zinegotzi bakoitzak dedikazio eskusiboa ala zatikoa nahi ote duen erabaki beharko du, inork behartu gabe, eta aukera idatziz adieraziko dio Lehendakariari, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren Erroldan jasoarazita zinegotzi tasuna bereganatu baino hamar egun lehenago, nahiz eta, izapide berdinak beteta, erregimena noiznahi alda dezakeen.

6.**Korporazioko kideek** diru konpentsazioak jasoko dituzte kargua betetzeak eragindako gastuen truke; **betiere, udal jarduerak eragindako eta behar bezala justifikatutako gastuak badira**, administrazio publikoetan oro har aplikatu beharreko arauak eta horiek garatzeko udalbatzak berak onartzen dituenak kontuan **izanda**.

7.Korporazioak aurrekontuetan zehaztu beharko ditu aurreko lau ataletan aipatutako lansari, indemnizazio, eta **bilkuretara joateagatiko dieta sariak**, oro har ezarritako mugen barnean. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki oholetan eta www.donostia.org **udal web orrian** osorik argitaratu beharko dira udalbatzak honako gai hauek arautzeko onartutako erabakiak: Dedikazio eskusiboa eta zatikoa duten karguen lansariak, azkenon dedikazio erregimena, indemnizazioak, bilkuretara joateagatiko dieta sariak, baita eginkizunak dedikazio eskusiboan edo zatikoan nork beteko dituen xedatzeko alkateak ematen dituen ebazpenak ere.

8. Kentzen da.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 12. artikulua 6. eta 7. puntuak aldatzen dira.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 12. artikulua 8. puntua kentzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

13. artikulua. Informazio eskubidea.

1.Gobernu ardurak, kide anitzeko udal organoetako kidearen eskubide eta eginbeharrak edo kontrol eta fiskalizazio eginkizunak bete ahal izateko, zinegotzi guztien eskubide da gobernuari eta administrazioari udal administrazioaren **edo udal titulartasuneko Erakunde Publiko edo elkartearen esku** den edozein dokumenturen informazioa zuzenean eskatu hala izatea, edozein dela ere espedientearen tramitazio aldia, hura emateak lege mugakizunak urratzen ez dituen bitartean. Aipatu mugen gaineko desadostasunik balego, Udalbatzaren Idazkari Nagusiak ebazpena eman beharko du.

Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiari jakinaraziko diote zein informazio nahi duten eta zer administrazio unitatek **edo entitatek** daukan. Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak eskabidea administrazio unitatera **edo entitate** bidaliko du, Udalbatza erroldan jasoarazita.

Informazio eskaera administrazio unitateari edo entitateari jakinarazi eta hamar egun arrunteko epean bidaliko dute, lehen bost egun arruntetan hura gaitzesteko ebazpen arrazoitua eman ezean.

Udal gaiei buruzko taldeen informazio-eskaeren erregistroa sortuko du Idazkaritza Nagusiak Udalbatzaren erregistroan, eta eguneratuta edukiko du. Erregistroan datu hauek jasoko dira: Gaia, eskaera egin duen taldea, eskaera nori zuzendu dion, eskaera-eguna, erantzun-eguna, igorpen-eguna eta dagokion egunean erantzuteke dauden eskaerak.

Eskatutako informazioa gehienez ere hogeit hamar eguneko epearen barruan emango da, eta, ematerik ez badago, epe beraren barruan jakinaraziko zaio taldeari zergatik idatzi bidez.

Idazkaritza Nagusiak hiruhilean behin bidaliko dizkio Bozeramaileen Batzordeari lehen esan dugun epe horren ez betetzeak

* 2010-06-25eko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 13.1. artikulua aldatzen da. Geroago, 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, honela gelditzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

2.Zinegotziei beren eginkizunak betetzeko behar duten informazioa emateko, eta informazioa zuzenean eskatzeko eskubidea gutxietsi gabe, **eskura dauden bezain laster** zinegotziei Donostiako Gobernu Batzarraren gai zerrendak, irizpenak eta aktak bidaliko dizkiete, baita alkatetzaren dekretu eta ebazpenak zein zinegotzi ordezkarien ebazpenak ere.

3. Informazioa euskarri informatikoan emango diete halako euskarrian edukiz gero.

4. Udal administrazio zerbitzuek nahitaez eman behar diete informazioa zinegotziei Udaltzaren Idazkaritza Nagusiari jakinarazi gabe, honako hauek gertatuz gero:

a) Delegazioak edo gestio ardurak dituzten korporazioko kideek alor horietako informazioa eskatzea.

b) Edozein korporazioko kideek partaide deneko kide anitzeko organoetan aztertu beharreko gaien gaineko dokumentuak edo edozein udal organok emandako ebazpenak eta hartutako erabakiak eskatzea.

c) Korporazioko kideek edozein herritarrek mugakizunik gabe eskura dezakeen udal informazioa edo dokumentazioa bereganatu nahi izatea.

5. Espediente, liburu eta dokumentuak kontsultatu ahal izateko, oro har, honako arau hauek bete beharko dira:

a) Edozein espediente edo dokumentuzko aurrekari, orokorrean, artxibo nagusian edo dena delako bulegoan kontsultatu ditzake zinegotziak, dokumentuak berak edo kopiak eskuratuta, **bere** bulegoan edo korporazioko kideentzako sala pribatuetan azter ditzan.

b) Espediente, liburu eta dokumentuak ezingo dira inoiz atera Udaletxetik edo tokian tokiko egoitza eta bulegoetatik.

c) Akta liburua eta lehendakariaren Ebazpen liburuak artxiboan edo Idazkaritza Nagusian kontsultatu daitezke.

d) Bilkuran erabaki beharreko espedienteak deialdi egin ondoren dokumentuok dauden egoitzan baino ezingo dira aztertu.

6. Aurreko zenbakiko a) atalean xedaturiko emateari dagokionez, eta administrazio kontrolaren aldetik, interesatuak jaso izanaren agiria izenpetu beharko du, eta nahitaez itzuli

beharko du dokumentazioa berrogeita zortzi orduren buruan edo lehenago, aipatu espedientearen izapide beharren arabera.

7. Korporazioko kideak behartuta daude beren zeregina betetzeko eskuratzen dituzten informazioak isilpean edukitzera, batez ere oraindik erabakizun diren gaietan aurrekari izan behar dutenak, baita aztertzeko utzi dieten informazio jatorrizkoa edo kopia beste inork kopiatzea galaraztera ere.

13. artikulua BIS. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea.

1. Korporazioa osatzen duten kideek eskubidea izango dute euren eginkizunak Autonomia Erkidegoko nahi duten hizkuntza ofizialean burutzeko.

2. Euren lana gauzatzeko, eta batzordeetan edo osoko bilkuretan landu beharreko zeinahi proposamen, proiektu, interpelazio, mozio edo erakunde adierazpenekin lotuta, zinegotziek ekimenean erabili ez den hizkuntza ofizialean ere jasotzeko eskubidea izango dute. Eskubide hori egikaritzeko (alegia, informazioa bi hizkuntza ofizialean, euskaraz zein gaztelaniaz, jasotzeko eskubidea egikaritzeko), proposamen, proiektu, interpelazio, mozio edo erakunde adierazpenen bat hizkuntza bakarrean aurkeztuko balitz, informazioa bi hizkuntzetan jasotzeko behar diren mekanismoak erabiliko dira, aurkeztutako ekimenak izango dituen prozedura epeei inolako murrizketarik eragin gabe.

3. Udaltzaren ordezkari politikoek noiznahi sustatuko dute euskara erabiltzea, ahal den neurrian, are haien jendaurreko ekitaldietan ere.

* 2014-03-27ko Udaltzako akordioaren ondorioz, 13. artikulua BIS gehitzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

14. artikulua. Bilkuretara joan beharra.

1. Korporazioko kideak behartuta daude partaide diren kide anitzeko organoen bilkura guztietara joatera, bidezko kausaren batek eragotzi ezean, eta hala izanez gero, aipatu organoaren lehendakariari aurretik adierazi beharko diote.

2. Bilkuretara joan beharra exijitzekoa da Udal kide izategatik parte hartu beharreko kide anitzeko organoen bilkurei dagokienez ere.

15. artikulua. *Bilkurara ezin joana jakinarazi beharra.*

1.Udalerritik kanpo zortzi egunetik gora joanez gero, Lehendakariari adierazi beharko diote.

2. Kentzen da.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 15. artikuluko 2. puntua kentzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

16. artikulua. *Abstenitu beharra. Arbuiatzea.*

1.Legez xedatutako bateraezintasun zioez gain, Korporazioko kideek ez dute parte hartu behar gai bat eztabaidatzen, erabakitzen eta betearazten Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legeak aipatzen duten kausaren bat gertatuz gero. Halako zioen bat biltzen duen kidearen partaidetza erabakitzailea izan bada, parte hartutako ekintzak indarrrik gabe geratuko dira.

2.Interesatuak noiznahi gaitzets dezakete zinegotziren bat edo beste.

II. KAPITULUA. ERANTZUKIZUNAK ETA DIZIPLINA

17. artikulua. *Erantzukizunak*

1.Korporazioko kideak erantzukizun zibil eta penalaren mendean daude karguan ondorioz egindakoengatik eta omisioengatik. Erantzukizunak eskudun justizi auzitegietan eskatuko dira, eta aplikatu beharreko ohiko prozeduraz izapidetuko dira.

2.Korporazioaren erabakien erantzule dira alde bozkatu duten kide guztiak.

3.Korporazioak erantzukizuna ezka diezaieke kideei iruzur edo erru larriaren ondorioz korporazioari berari edo beste inori kalterik sortu badiote, kalteak korporazioak ordaindu behar izan baditu.

4.Korporazioko kideak administrazio erantzukizunaren mendean izango dira, datozen artikuluetan garatutako terminoetan.

18. artikulua. *Bilkurako diziplina.*

Bilkura gauzatu bitartean, diziplina arautuko da arau honetako V. Tituluko V. Kapituluan azaldutakoaren arabera.

19. artikulua. *Udal egoitzetako diziplina.*

Lehendakaria bere botereak erabilita arduratuko da osoko bilkuren aretoko zein zinegotziek eta talde politikoek darabiltzaten udal egoitzetako ordena zainetzeaz, eta, hartarako, egoki irizitako neurriak hartuko ditu, **zinegotzien eta gainerako udal langileen segurtasuna eta osotasun pertsonala bermatzeko.**

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 19. artikuluari letra lodiz jarritakoa gehitzen zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

20. artikulua. *Kanporatzea.*

Bilkuran zein bilkuratik kanpo portaeraz edo hitzez desordena larriarik sortzen badu, dena delako korporazioko kidea segituan kanporatuko dute, **Lehendakariak horrela aginduta.**

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 20. artikuluari letra lodiz jarritakoa gehitzen zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

21. artikulua. *Zigorra*

1. Zinegotzia zigor dezakete, alde biko espedientearen ondorioz, **Lehendakariaren ebazpenez, Bozera maileen Batzordeak erabaki ondoren**, honako hauetakoren bat gertatuz gero:

a) Behin baino gehiagotan edo nabarmenki, borondatez osoko bilkuretara edo batzordeetara joateari uztea.

- b) Legeek behartutako edo halako organoak erabakitako isilpekoa haustea.
- c) Udal egoitzan, bilkuran zein bilkuratik kanpo, portaeraz edo hitzez desordena larria sortzea.
- d) Bilkuratik botatzea.

2. Bozera maileen Batzordeak erabaki ondoren, **Lehendakariaren ebazpen** funtsatu batek zigorraren zenbatekoa adieraziko du, eta zinegotziaren eskubide ekonomikoei beste horrenbesteko kantitatea kenduta konpentsatuko da.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 21. artikuluari 1. eta 2. puntuan letra lodiz jarritakoa gehitzen zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

22. artikulua. Delitua.

Zigortutako ekintza Bozera maileen Batzordearen arabera delitua izanez gero, Lehendakariak **ofizialki jakinaraziko dio** eskudun organo jurisdikziozkoari.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 22. artikuluan letra lodiz jarritakoa gehitzen zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

III. TITULUA

UDAL TALDE POLITIKOAK

I. KAPITULUA. ERATZEA

23. artikulua. Eratzea.

1. Korporazioan jardun ahal izateko, korporazioko kideek talde politikoak eratuko dituzte, tokiko arauetan eta arau honetan xedatutako moduan eta eskubide-eginbeharrekin.

2. Korporazioko kideak ordezkatzeko duten hauteskunde erakundeak eratzen duen talde politikora sartuko dira, talde politikoak gutxienez **hiru** zinegotzi baditu.

3. Gainera, Talde Misto bat izango da, eta hartara sartuko dira, nahitaez, talde beregaina lortzeko behar beste zinegotzirik lortu ez duten hauteskunde erakundeetako zinegotziak. Talde Mistoari, **hauteskunde erakunde bakarreko kideek osatzen badute**, aipatu korporazioko kidearen hauteskunde erakundearen izena eman dakioke.

Talde Mistoak Udaleko jardueretan izango duen parte hartzea gainerako Taldeen berbera izango da.

Talde Misto bere kideek hartzen dituzten erabakiek arautuko dute. Akordiorik lortu ezin denean edo akordioak hausten direnean, Talde Misto, zeinahi kideren eskariz, antolakuntza eta funtzionamendu arau batzuk landu eta onartuko ditu, kideen gehiengoarekin.

Talde Mistoko kideek eztabaidetan egiten dituzten esku hartzeak, oro har, gainerako Udal taldeen esku hartzeen iraupen bera izango dute, esku hartzeak txanda berean edo txanda desberdinetan egiten diren kontuan hartu gabe

4. Hautatu zuteneko hauteskunde erakundeak eratzen duen Talde Politikora sartzen ez diren zinegotziak edo jatorrizko taldea uzten dutenak zinegotzi atxiki gabetzat joko dira.

5. Aurreikuspena ez zaie aplikatuko hauteskunde koalizio moduan aurkeztu diren hautagaitzei, osatzen duten alderdietako batek batek kolaziotik irtetea erabakitzen badu. Aipatu egoera gertatuz gero, nahi duten zinegotziak koalizioa bertan behera uzten duen alderdiak osatzen duen talde politikora sar daitezke, gutxienez **hiru** zinegotzi izanez gero. Hala ez balitz, nahitaezkoa izango da Talde Mistora sartzea.

6. Udal talde politiko bateko zinegotzi gehienak hauteskundeetara bere kandidaturan eraman zituen erakunde politikotik badoaz edo taldetik botatzen badituzte, dena delako erakunde politikoa geratzen diren zinegotziak izango dira talde politikoaren legeko kideak ondorio guztietarako. Nolanahi ere den, Udalbatzaren idazkari nagusiak kandidatura aurkeztu zuen erakunde politikoaren legeko ordezkariarengana jo dezake egoera zertan den egiaztatzeko eskatzera.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 23. artikuluari 2. 3. eta 5. puntuetan letra lodiz jarritakoa gehitzen zaio eta 3. puntuari paragrafo berriak gehitzen zaizkio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

24. artikulua. Nola eratu eta bozeramailea izendatu.

1. Talde politikoak eratuko dira kide guztiek izenpeturiko idazkia alkateari bidaliaz, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian aurkeztu beharko dutela Udalbatza eratu eta hurrengo bost laneguneko epean.

Eratze idazki berean jasoaraziko dute nola deitu behar dioten taldeari eta nor izango den bozeramale ordezkaria, halakoaren ordezkia ere izenda dezaketela.

2. Alkateak talde politikoaren eraketaren, haietako kideen eta bozeramaleen berri eman beharko dio Udalbatzari hura eratu eta hurrengo bost eguneko epea amaitutakoan egiten den lehenengo osoko bilkuran.

3. Zinegotzi tasunaz Udalbatza eratzeko bilkuraren ondoren jabetzen diren Korporazioko kideak taldeetara sartuko dira aurreko arauen arabera.

II. KAPITULUA. GAUZA ETA GIZA BALIABIDEAK

25. artikulua. Ekonomi baliabideak

1. Udalbatza osoak bere urteko aurrekontuetan kantitate bat izenda diezaieke talde politikoei, eta kantitate horrek zati finko eta berdina izango du talde guztientzat, eta beste bat, aldakorra, taldekide kopuruaren arabera, Estatuaren Aurrekontu Orokorren legeek oro har xedaturiko mugen barruan, eta kantitateak ezingo dira erabili Korporazioaren zerbitzuan diharduen edozein langile motari ordaintzeko edo ondare aktibo finko izan daitezkeen ondasunak erosteko.

2. Talde Politikoen ekonomi zuzkiduraren kontabilitate berezia eduki beharko dute, eta Udalbatzaren esku jarri beharko dute organo horrek eskatzen duen bakoitzean.

26. artikulua. Jarduteko baliabideak izendatzea

1. Udal administrazio antolamenduaren ahalbide funtzionalen neurrian, talde politikoen udal administrazioaren egoitzan bulego edo lokal bat edukiko dute taldekideak elkartzeko eta herritarren bisitak jasotzeko, eta Alkateak gauza eta giza baliabideen azpiegitura nahikoa jarriko du halakoen esku.

Giza baliabideen osagai izango dira Udalbatzak onartutako izendapen askeko langile aldi baterakoak, **Talde bakoitzak osoko bilkura duen ordezkariaren arabera.**

Osoko bilkurak aldi baterako langileen ordainsariei buruz hartutako erabakiak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, udal iragarki oholetan eta www.donostia.org udal web orrian osorik argitaratu beharko dira.

2. Talde politikoen korporazioaren lokalak erabil ditzakete **herritarrekin edo herritarren** interes kolektiboak, orokorrak edo sektorialak defendatzen dituzten elkarteekin biltzeko edo lan bilkurak egiteko.

3. **Bozeramaile Batzordeak eskumena daukan organoak behin betiko ebatzi baino lehen Korporazioko Taldeen lokalak erabiltzeko araubidea zehaztuko du, kontuan izanda koordinazio funtzionala eta talde bakoitzaren ordezkari taldearen zenbatekoa.**

4. Talde politikoen izendatu behar dituzte, bozeramaleak lehendakariari idatziz jakinarazita, korporazioko kideak eratutako kide anitzeko organo guztietan ordezkariak dituzten lagunak.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 26. artikulua 1. puntuaren 2. paragrafoari letra lodiz jarritakoa gehitzen zaio eta baita beste paragrafo bat ere. 2. eta 3. puntuetan letra lodiz jarritakoa gehitzen zaio eta 3. puntuari paragrafo berriak gehitzen zaizkio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

III. KAPITULUA. KIDE ATXIKI GABEAK

27. artikulua. Definizioa

Hautatu zuteneko hauteskunde erakundeak eratzen duen Talde Politikora sartzen ez diren zinegotziak, edo jatorrizko taldea uzten dutenak zinegotzi atxiki gabetzat joko dira.

Xedapena ez zaie aplikatuko hauteskunde koalizio moduan aurkezten diren kandidatei baldin eta taldeetakoren batek kolaziotik irtetea erabakitzen badu.

28. artikulua. Eskubideak.

Zinegotzi atxiki gabeen eskubide ekonomiko eta politikoak ez dira izango jatorrizko taldean geratuz gero edukiko zituztenak baino handiagoak.

Zinegotzi atxiki gabeak ez du taldeari izendaturiko diru kantitatea jasotzerik, ezta taldeari izendatutako langile aldi baterakoak erabili ere.

Alkateak lanerako behar dituen tresnak izendatuko dizkie: Telefonoa, ordenadorea, idazteko gaiak, lantokia.

Udalbatzako batzorde iraunkor guztietako kide izan daitezke, baina ezingo dute erabili arau honek talde politikoei aitortzen dien ekimenak aurkezteko ahalmena.

Bilkuretan parte hartzeko zenbat denbora edukiko duten jakiteko, udal taldeei dagokien denbora zinegotzi kopuruaz zatituko da.

IV. TITULUA

UDALBATZAREN ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA. OSAKETA ETA ESKUMENAK

29. artikulua. Osaketa.

Udalbatza zinegotzi guztiek osatuko dute, eta alkateak zuzenduko du, indarreko legeek xedaturiko egokieretan izan ezik.

Hala ere, gomendagarria izango da alkateak Udalbatzaren Lehendakaritza beste zinegotzi baten esku uztea.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 29. artikuluari letra lodiz jarritako 2. paragrafo bat gehitzen zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

30. artikulua. Eskumenak.

Udalbatzari dagozkio Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123. artikulua xedatutako eskumenak.

II. KAPITULUA. UDALBATZAREN LEHENDAKARIA

31. artikulua. Eginkizunak.

1. Udalbatzaren zuzendaritza organoa lehendakaria da, eta bere eginkizunak betetzerakoan Udalbatzaren idazkari nagusiaren eta Bozeramaleen Batzordearen laguntza izango du. Udalbatzaren zuzendaritza organo moduan, lanen bilakabide egokia bermatuko du, bilkurak deitu eta zuzenduko ditu, baita eztabaidak gobernatuko eta ordenan iraunaraziko ere.

2. Lehendakariari dagozkio araudi hau betetzea eta betearaztea eta, zalantzarik izatekotan, bilkuran interpretatzea edo ordezkatzeta, hutsunerik balu.

3. Lehendakariak, gainera, legeek eta araudi honek izendatzen dizkieten beste eginkizun guztien jabe izango da.

32. artikulua. Lehendakaritza inoren esku uztea.

Alkateak nahierara utz ditzake zinegotziren baten esku Udalbatza deia egitea eta bilkura zuzentzea. Ordezkaritza mugagabea edo bilkura oso baterako izan daitekeenez gero, ebazpen bidez gauzatuko da, eta Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian egon beharko du bilkura izan baino 24 ordu lehenago, zinegotzi guztiei ere jakinarazi beharko dietela.

Ordezkaritza mugagabea denean, alkatearen ekimenez Udalbatzak berak izenda lezake Udalbatzaren burutza izango duen zinegotzia. Orduan, aukeratu ondorenean, Alkateak ordezkari itza ebazpena emango du.

Halaber, eta egokiera eta bilkura beretan, lehendakariorde lehena eta lehendakariorde bigarrena ere izendatuko dituzte, lehendakariaren ordezkari jarduteko hura kanpoan edo gaixorik ala kargua bera bete gabe egotekotan.

33. artikulua. Ordezkatza.

1.Udalbatzaren lehendakaria gaixorik edo kanpoan balego ala kargua bera bete gabe eta alkateak lehendakariorderik izendatu ez balu, bere eginkizun guztiak alkateorde baten esku geratuko lirateke, alkateordeen izendapen hurrenkeran.

2.Lehendakaritzak ordezkari balu, ordezkotza bete beharko lituzke ordezkari bera ebazpenaren edukiak.

3.Ordezkatza gauzatuko da halakoaren gaineko adierazpen ekintza berariazkorik gabe, Udalbatzari gertatu izanaren berri eman beharko diotela.

Halaber, saioaren bat egiterakoan Alkateak tarte baterako kanpora joan behar balu edo aztergaitzen baten bozketan abstenituko, ordezkari beharra iragarri ondoren, hurrenkeran dagokion alkateordeak ordezkari luke.

III. KAPITULUA. UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA

34. artikulua. Izendatzea eta jardutea.

1.Udalbatzak idazkari nagusi bat izango du, batzordea berena ere izango dena, eta haren ardura izango da, lehendakariaren zuzendaritzapean, aipatu organoei laguntza, babesa eta aholkularitza juridiko, tekniko eta administratiboa ematea.

2.Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren arduraduna lehendakariak izendatuko du, toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak xedatutako terminoen arabera.

3.Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren kide izango dira idazkari nagusia bera eta organismoaren mendeko unitate eta zerbitzuetan dauden udal langileak.

Udalbatzaren idazkari nagusiak eginkizun batzuk egiturako udal langileen esku utzi ditzake.

4.Postua bete gabe ala idazkaria bera gaixorik edo kanpoan egonez gero, edo Idazkaritzaren titularra bere eginkizunak betetzeko ezgaitzen dun beste edozer gertatuz gero, eginkizunak beteko ditu ordezkari bera edo ordezkotza haiek bete beharra duen funtzionarioak.

35. artikulua. Eginkizunak.

1.Udalbatzaren idazkari nagusiak honako eginkizun hauek izango ditu:

a)Udalbatzak, Bozeramaleen Batzordeak eta batzordeek egindakoen fede publikoa ematea. Hartarako, besteak beste, hari dagozkio aktak erredaktatu eta zaintzea, aktok aztertu eta baimentzea Udalbatzaren lehendakariak ontzat eman ondoren, eta, lehendakariak ere ontzat emanda, ekintzen eta erabakien egiaztapenak ematea.

b)Lehendakariari **eta Bozeramaleen Batzordeari** esku ematea bilkurak deitzen, eztabaidak antolatzen eta bozketak behar bezala bideratzen, baita Udalbatzaren eta Batzordeen ohiko lanak behar bezala gauzatzen laguntzea ere.

Udalbatzaren Idazkaritza Orokorra amaitutako eta osatutako gaien zerrenda helaraziko dio Lehendakariari, Gai zerrendan sar dezan.

c)Udalbatzaren erabakiak jakinaraztea, argitaratzea eta betearaztea, are Estatuaren eta Autonomia Erkidegoaren administrazioetara Udalbatzaren ekintzen edo erabakien aldakia edo, bestela, laburpena bidaltzea ere.

d)Udalbatzari eta batzordeei lege aholkularitza ematea, nahitaez honako hauek gertatuz gero:

1.Lehendakariak hala agintzea, edo kideen heren batek zein bi udal taldek eskatzea, gaia aztertu beharreko bilkura egin aurretik, legezko epeen barruan.

2.Gehiengo bereziren bat behar duten gaiak aztertzea.

3.Legeren batek udalbatzaren eskumeneko gaietan hala exijitzea.

4.Gobernu organoak kontrolatzeko eta fiskalizatzeko eginkizunaren barnean, lehendakariak edo zinegotzien laurdenek, behintzat, eskatzea.

5.Dagokion legedian, eta zehazki, **Herritar Partaidetzaren Araudi Organikoan aurreikusitako herritar ekimena egikaritzean.**

e)Hauteskunde legeek udal idazkariei izendatzen dizkien eginkizunak.

f)Korporazioko kideen interesen errolda eguneratzea eta zaintzea.

g)Udalbatza erroldaren funtzionamendua zuzentzea.

2.Udalbatzaren idazkari nagusiak bere eginkizunak autonomiaz beteko ditu, eta, hartarako, Udal organo eta zerbitzu guztiei nahi beste informazioa eska diezaike.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 35. artikuluari 1b eta 1d5 atalei letra lodiz jarritakoa gehitzen zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

36. artikulua. Bestelako eginkizunak.

Udalbatzak baimendu eta titularra ados egonez gero, lege aholkularitzaren titularra ere izenda dezakete.
Baimen hori Udalbatzak edonoiz baliogabe dezake.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 36. artikuluari letra lodiz jarritakoa gehitzen zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

37. artikulua. Azpiegitura eta zuzkidurak.

1.Eginkizun eta eskumenak behar bezala gauzatzeko, Idazkaritza Nagusiak egoitza egokia eta beharrezko langile zein baliabide teknikoak edukiko ditu.

2.Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak, Udalbatzaren lehendakariak zuzenduta, administratu beharko ditu Udalbatzak bere eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezko dituen baliabide guztiak.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 37. artikuluko 2. puntua kendu da. Ondorioz, 3. puntua 2. izatera pasatzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

38. artikulua. Udalbatza Errolda.

1.Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren mendean egongo da organo horren errolda berezia, beste Udal organoen erroldetatik beregaina, ekimenak eta Udalbatzarekin eta batzordeekin zerikusia duten dokumentuen sarrera-irteerak jasotzekoa.

2.Honako araudi honek xedatzen ez dituen beste guztiei dagokienez, Udalbatzaren eta bere batzordeen dokumentuak aurkezteko araubidea administrazio prozedura erkidearen gaineko estatu legeetan xedatutakoa izango da.

39. artikulua. Txostenak ematea.

1.Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren eta batzordearen nahitaezko txosten eskabideak, direla lehendakariarenak, direla 35.1.d artikuluko 1. eta 4. suposatuetan araututako zinegotzi edo talde politikoenak, Udalbatzaren Erroldan aurkeztu beharko dira.

Izan ere, 35.1 d) artikulua xedapenak ez du oztopatuko Udalbatzaren idazkari nagusiak ahoz ere iritzi eman ahal izatea bilkuran bertan lehendakariak edo, bere baimenez, zinegotziek hala eskatuta.

2.35.1 d) artikuluko 2., 3. eta 5. ataletan jasotakoak Udalbatzaren Erroldara sartuz gero, berez sortuko da txostena nahitaez eman beharra, bestelako eskakizunik gabe.

3.Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak legez eman beharreko txostenak prestatzeko epea hamar egunekoa izango da, Idazkaritzan txostena eman ahal izateko behar beste dokumentu eta aurrerakin egonez gero.

IV. KAPITULUA. BOZERAMALEEN BATZORDEA

40. artikulua. Izaera.

Bozeramaleen Batzordea da Udalbatzaren lehendakariaren kontsulta organoa, eta, oro har, eginkizuntzat du lehendakariari laguntzea erakunde antolamenduko gaitan, baita talde politikoen harremanen arteko auzietan edo taldeon eta alkatearen artekoetan ere, kontsulta lehendakariak edo alkateak eginez gero, biak lagun bera ez balira.

41. artikulua. Osaketa.

Lehendakaria, alkatea –pertsona bera ez badira– eta udal talde bakoitzaren bozeramale ordezkaria izango dira kide, zinegotzi ordezkoak edo ordezkariak ere izenda litzaketela.

Ordezkatutako edo ordeztutako zinegotziak izendatu edo aldatu behar izanez gero, idatziz jakinarazi beharko zaie Udalbatza erroldari eta Lehendakariari, eurek jakiteko eta Bozeramaleen Batzarreko gainerako kide guztiei ere horren berri emateko

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 41. artikuluari letra lodiz jarritakoa gehitzen zaio 2. paragrafo moduan.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

42. artikulua. Eginkizunak.

Hona hemen eginkizunok:

1. Lehendakaria eta, beste lagun bat balitz, alkatea aholkatzea hala eskatzen dutenean.

2. Erakunde jardueretan parte hartzea, honako gai hauek erabaki edo izapidetu aurretik, nahitaez haren iritzia entzun beharko dutela:

a) Udalbatzaren Organo Araudiaren interpretazioa, **Udalbatzaren Idazkari Nagusiak aurretiko txostena eginda.**

b) Presazko osoko bilkura ohiz kanpokoak deitzea egokia den erabakitzea, egokierak hartarako oina ematen duenean.

c) Osoko bilkurak Udaletxeaz bestelako eraikin batean egitea, ezinbesteko egoeretan.

d) Osoko bilkurak Udaletxetik kanpo egitea, erakunde garrantzi bereziko ziorik dagoenean.

f) Esparrura gehienez zenbat lagun sar daitekeen zehaztea eta Osoko Bilkurara joan direnak identifikatzea.

g) Saioa atea itxita egin behar dela erabakitzea.

h) Eskumen arrazoiagatik onartzen ez diren ekimenak lantzeko Batzordea zehaztea.

3. Erakunde jardueran parte hartu eta, eskumena duen organoak behin betiko onartu baino lehen, honako gaiei buruz erabakiak hartu behar ditu:

a) Udalbatzari edo haren batzordeei proposatutako ekimenen kalifikazioa aldatzea, haien edukiaren arabera; horretarako, Udalbatzaren Idazkari Nagusiaren iritzia eta ekimena egiten duenaren Udal taldearen Bozeramalearen iritzia entzun beharko du.

b) Bilkurak egin aurretik, parte hartzeko denborak erabakitzea.

c) Udal taldeetako kideei osoko bilkuren aretoko jarlekuak esleitzea.

d) Osoko Bilkurako Lehendakariak txostena egin ondoren, Korporazioko Taldeek lokalak erabiltzeko araubidea zehaztea.

e) Udalbatzako Lehendakariari gai zerrendan mozioak sartzeko proposamena egitea.

f) Erakunde Adierazpenei dagokienez, onartzea eta, hala bada, Lehendakariari osoko bilkuren Gai zerrendan sartzeko proposamena egitea. Hori guztia, Araudi honetan jasotako gehiengoekin.

g) Zinegotziek Udalbatzan lantzeko aurkeztutako idazki eta dokumentuak kalifikatzea.

h) Udalbatzak mozioen eta interpelazioen ondorioz erabakitakoak betetzen direla kontrolatzea eta horien jakitun egotea, zeregin horietarako Batzorde Berezik eratzeko ez den kasuetan.

i) Korporazioko kideak zigortzea, dagozkien eginbeharrak ez betetzeagatik.

j) Araudi Organikoak edo beste ezein udal araudik esleitu diezazkizoketen beste guztiak.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 42.2 artikuluari a) c) d) f) g) eta h) atalak aldatzen zaizkio honela geldituaz eta 42.2 e) eta i)-tik r)-ra kentzen dira. 42 artikulua 3. puntua aldatzen da eta 4tik 9ra bitarteko puntuak kentzen dira.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

43. artikulua. *Lehendakaritza.*

Bozeramaleen Batzordearen lehendakari izango da Udalbatzaren Lehendakaria, eta idazkari Udalbatzaren idazkari nagusiak edo berak izendatzen duen administrazioko funtzionarioa, bilkura akta egin eta erabakiak betetzen diren aztertzeko. Hartarako, hiru hilean behin, hartzen diren erabakien betetze mailaren gaineko txostena prestatu beharko du.

44. artikulua. *Deialdia.*

Bilera egingo du, betiere, **Lehendakaritzak bere kabuz hala erabakitzen duenean; alkateak hala eskatzen duenean; edo Udal Taldeen Bozeramaileek horretarako eskari arrazoitua egiten dutenean, baldin eta Udalbatzako kideen laurdenak badira, gutxienez.**

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 44. artikulua aldatzen da letra lodiz jarritakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

45. artikulua. *Deitzeko era*

Oro har, Bozeramaleen Batzordea osoko bilkurak egin aurretik elkartuko da.

Gai zerrendadun deialdia –gutxienez, berrogeita zortzi ordu lehenago bidali beharrekoa, presazko osoko bilkuretan izan ezik– behar bezala egindakotzat joko da batzordekide bakoitzari udal barne posta elektronikoen helbidera edo, kideak berak ez balu, taldearen helbidera jakinarazpen elektronikoa bidaliaz, behar bezala egiaztatuta geratu behar duela Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak deialdia bidali izanak.

Halaber, aztertu beharreko gaietako dokumentuen kopiak eta aurreko bilkura aktaren berradorea ere bidaliko dizkiete.

46. artikulua. *Bilkura egiteko quoruma.*

Bozeramaleen Batzordea legez eraturat joko da lehendakaria eta idazkaria ez ezik, kideen erdiak eta bat gehiago agertuz gero, eta horiek, gainera, boto haztatuan, Korporazioko kideen legeko kopuruaren erdiak eta bat gehiago ordezkatzeko badute. Quorumari eutsi behar diote bilkura osoan.

47. artikulua. *Bozketa.*

Batzordearen erabakiak, erakunde adierazpenak hartzeko adierazitako gehiengo indartuaz salbu, botoen gehiengo soilez hartuko dira, bozeramale bakoitzak taldeko zinegotzien kopuruari dagokion boto haztatua erabiliko duela. Lehendakariak eta, halakorik balego, alkateak, ez dute botorik ematerik izango.

48. artikulua. *Bilkura araubidea.*

Lehendakariak Bozeramaleen Batzordea gobernatu eta antolatzen du, osoko bilkuretako hastapen orokorrak errespetatuta, baina administrazio sinplifikazio, lastertasun eta eraginkortasun beharrera egokituaz.

49. artikulua. *Kide ez diren partaideak eta aktak.*

1. Bilkurak ez dira jendaurrekoak izango. Batzordearen lehendakariak, bere kabuz edo bozeramaleren baten ekimenez, bozeramaleek onartuz gero, langileen edo zinegotziak informazioa ematera agertzeko eska dezake.

2. Bozeramaleen Batzordearen bilkura bakoitzaren akta egin beharko da, honako hauek jasotzeko: Aztergaiak, aurkeztutako erabaki proposamenak, hartutako erabakien zentzua, boto partikularrak eta hala eskatzen dutenen boto azalpena.

V. TITULUA

UDALBATZAREN JARDUNBIDEA

I. KAPITULUA. BILKURAK

1. ATALA. Bilkura motak

50. artikulua. Bilkura motak.

Osoko bilkurak ohikoak, ohiz kanpokoak eta presazko ohiz kanpokoka izan daitezke.

51. artikulua. Ohiko bilkurak.

Udalbatzak ohiko bilkura hilean behin izango du. Lehendakariak, Bozeramaleen Batzordea jakitun jarri ondoren, abuztuan ohiko bilkurarik ez deitzea erabaki dezake.

Udalbatzari dagokio ohiko bilkuren eguna eta ordua zehaztea.

Eguna zehaztutakoan, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak bilkura egutegia prestatuko du; egutegi horretan, saioetarako eta honako ekimen hauetarako datak eta ordutegiak zehaztuko dira:

— Mozioak aurkeztea.

— Interpelazioak aurkeztea.

— Zuzenketak aurkeztea.

— **Herritar Partaidetzaren Araudi Organikoak araututako herritar partaidetzako organo egonkorren proposamenak aurkeztea.**

— Eztabaidatu beharreko gaiak zehaztea.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 51. artikulua aldatzen da letra lodiz jarritakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

52. artikulua. Ohiz kanpoko bilkurak.

Udalbatzak ohiz kanpoko bilkura egingo du lehendakariak hala erabakitzen duenean edo korporazioko kideen kopuru legalaren laurdenak, behintzat, eskatuz gero, zinegotzi batek ere ezingo duela urtean hiru baino gehiago eskatu.

53. artikulua. Zinegotziek eskaturiko ohiz kanpoko bilkurak.

1. Idatziz deituko dituzte, zergatikoa azalduta eta, erabakiren bat hartu nahi izanez gero, eztabaidatu eta bozkatu beharreko testua ere jasoko da.

2. Ohiz kanpoko bilkura eskatzen denetik ezingo da hamabost lanegun baino gehiago atzeratu, eta proposaturiko aztergaia ezingo da ohiko edo ohiz kanpoko beste osoko bilkura bateko gai zerrendan jaso deialdia eskatu dutenek berriaz baimendu ezean.

3. Aipatu epe horretan lehendakariak ohiz kanpoko osoko bilkura eskatuko ez balu, berez, aipatu epea amaitu eta biharamunetik aurrera hamargarren laneguneko hamabietarako deituta geratuko da, eta jakinaraziko die Udalbatzaren Idazkari Nagusiak korporazioko kide guztiei aipatu epea amaitu eta biharamunean.

4. Lehendakaria edo legez hura ordezkatu behar duena kanpoan egonez gero, Udalbatza lege zeratuta geratuko da oro har eskatzen den quoruma egonez gero, eta bertaratutako zinegotzirik adintsuenak gobernatuko du.

54. artikulua. Ohiz kanpoko bilkura presazkoa.

Udalbatzak ohiz kanpoko bilkura presazkoa egin dezake or ohar xedaturiko epea bete gabe. Hala gertatuz gero, gai zerrendako lehenengo aztergai moduan agertuko da Udalbatzak asuntza presazkotzat jo beharra.

Adierazpena Lehendakariak funtsatu beharko du, eta Udalbatza bat etorri ezean, bilkura, besterik gabe, amaitutzat joko dute.

55. artikulua. Politika orokorra adierazteko urtean behingo bilkura ohiz kanpoko.

1. Irailean edo urrian, lehendakariak Bozeramaleen Batzordeari kontsulta eginda bestela erabaki ezik, urtero-urtero, Udalaren politika orokorraren gaineko eztabaida izango da.
2. Eztabaida alkatearen parte hartzearekin hasiko da. Segituan, talde politikoen ordezkariak hitz egingo dute, gehienez ere, hogeita hamar minutuan.
- 3. Alkateak edo hark esku emandako zinegotziak eztabaida ixteko txanda bat izango du, 15 minutukoa, udal taldeen txanda bukatutakoan. Udal taldeek gehienez ere 10 minutuko txanda izango dute. Txikiena hasiko da eta handiena izango da azkena.**
4. Eztabaida amaitu eta bozketarik ez balego, lehendakariak bilkura amaitu dela aldarrikatuko du.
- 5. Bi orduko epea irekiko da Udalbatzaren Erregistro Nagusian Udalbatzarako Ebazpen Proposamenak aurkezteko, gehienez bi Udal Taldeko, ondorio moduan aplikatzeko.**
- 6. Epe hori bukatu ondoren, beste epe bat irekiko da, ordu 1ekoa, Taldeak adosteko, egoki irizten badiote eta landutako gaia bera baldin bada.**
- 7. Bilkura berriz hasi ondoren, taldeek ebazpen proposamen bakoitza aurkezteko txanda bat eta jarrera finkatzeko beste txanda bat izango dute, eta ondoren bozketa egingo dute, bilkura hau lantzeko egiten den Bozeramaileen Batzordean horren inguruko erabakia hartu ondoren Lehendakariak ezartzen dituen irizpideekin bat.**

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 55. artikulua 3, 5, 6 eta 7. puntuak aldatzen dira letra lodiz jarritakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

56. artikulua. *Gobernua bertaratzea.*

Edukirik gabe, AKSgatik.

57. artikulua. *Egoitza.*

Udalbatzaren osoko bilkurak Udaletxean bertan egingo ditu, ezinbestekorik gertatu ezean, hala izatekotan, Bozeramaleen Batzordearen iritzia entzunda, hartarako prestaturiko eraikinen batera aldatuko da, deialdian bertan aldaketaren berri emanda.

Salbuespenez, eta erakunde garrantziko zio berezirik izatekotan, Korporazioaren bi heren baino gehiago biltzen dituzten taldeen Bozeramaleen Batzordeak onartuz gero, lehendakariak osoko bilkura udalerriko beste egoitzaren batean dei dezake, beste egoitza hartarako prestatuz gero.

58. artikulua. *Bilkurek jendaurrekoak izan beharra*

Osoko bilkurak jendaurrekoak izango dira, eta Lehendakariak, **Bozeramaileen Batzordeari galdetu ondoren**, esparrura gehienez zenbat lagun sar daitekeen zehaztu beharko du **eta** osoko bilkuren aretora sartu **nahi duten herritarrak aldeztu aurretik, identifikatu beharko dira.**

Hala eta guztiz ere, bilkurak atea itxita dagoela ere egin litezke, **Bozeramaileen Batzordeari galdetu ondoren Lehendakariak hala erabakita**, eta horrek ez die publikotasunik kenduko saioei, hedabideen ordezkari kreditatuak egongo direlako lehendakariaren iritziz aztergaiak behar bezala aztertu eta erabakitze ordena publikoaren baldintzarik egongo ez direneko osoko bilkuretan.

Isilpekoak ere izan litezke osoko bilkura batzuetako gai batzuen eztabaida eta bozketa, hedabiderik gabe, gehiengo osoak hala erabakirik, Konstituzioaren 18.1 artikulua aipaturiko herritarraren oinarritzko eskubideetan eraginik izan ahal izanez gero.

Bilkurak aditzera emateko megafonia sistemak, telebista zirkuituak eta Interneten moduko komunikazio sareak.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 58. artikulua lehenengo bi paragrafoak aldatzen dira letra lodiz jarritakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

59. artikulua. Bilkuretako jokabidea.

Bilkura jendaurrekoak izateak ez dakar ikusleek parte hartu ahal izaterik, eta Lehendakaritzak ez du onartuko konforme dauden ez dauden adierazterik, ekintza behar bezala gauzatzea galarazten duten lagunak aretotik botatzeko agindu dezakeela. Korporazioko kideek, halaber, ezingo dute inolako harremanik izan ikusleekin, ezta gainerako korporazioko kideen adierazpen askatasuna galaraz dezakeen edozein jokabide edo ekintza gauzatu ere.

60. artikulua. Iraupena.

Bilkura guztiek ekintza batasunaren hastapena errespetatu beharko dute, eta, ahal dela, hasten den egunean bertan amaituko dira. Bilkurako gai zerrendako azterkizun guztiak landu eta ebatzi gabe amaituz gero, lehendakariak bilkura amaitutzat jo lezake, baina aztertu gabeko gaiak hurrengo osoko bilkurako gai zerrendari erantsiko litzaizkioke.

Bilkura bitartean, lehendakariak, borondatera, etenak agindu ditzake, taldeek zeinek bere aldetik gaia azter dezaten, Bozeramaleen Batzordean zer edo zer kontsultatzeko, Udalbatzaren idazkari nagusiari lehendakariak eskatutako galdera juridikoak argitzeko, eztabaidetan atseden hartzeko eta antzeko zioetarako.

Bilkurak aurrera egitea galarazten edo zailtzen duen egoerarik gertatuz gero, lehendakariak saioa eten ez ezik, taldeen bozeramaleekin hitz egindakoan, erabaki dezaken noiz hasiko den berriro etendako bilkura edo azterkizunak hurrengo osoko bilkuran landu behar dituzten.

2. ATALA. Deialdia eta gai zerrenda

61. artikulua. Deialdia.

Deialdi egunetik bilkura egin arte, gutxienez, bi lanegun igaroko dira, presazko bilkura ohiz kanpokoetan izan ezik.

62. artikulua. Banaketa.

Gai zerrendadun deialdia behar bezala egindakotzat joko da Korporazioko kide bakoitzari udal barne posta elektronikoaren helbidera edo, kideak berak ez balu, taldearen helbidera jakinarazpen elektronikoa bidaliaz, behar bezala egiaztatuta geratu behar duela Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak deialdia bidali izanak.

Deialdiaren eta gai ordenaren kopia idatziak gordeko dira Udaletxeko jakinarazpen eta dokumentuetarako kutxatilan.

Gai zerrenda eta osoko bilkuren erabakiak jendaurrean jarriko dira udalaren web orrian.

Udal informatika zerbitzuaz deialdia egiten den egunetik bertatik korporazioko kide guztien esku egongo dira Udalbatzak aztertu beharreko erabaki proposamenak, landu beharreko gaietako espedienteetan jasotakoaren arabera.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 62. artikulua 2. paragrafoaren ostean letra lodiz jarritako paragrafoa gehitzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

63. artikulua. Aztergaietako dokumentuak.

Gai zerrendako gaietako espedienteak Korporazioko kideen esku egongo dira deialdia egiten den egunean bertan, hartarako prestaturiko aretoan edo egoitzan. Korporazioko kideek, beraz, espedienteak azter ditzakete, baina arreta berezia eman beharko diote jatorrizko dokumentuak inondik inora erakusgai dauden tokitik ez ateratzeari.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 63. artikuluari letra lodiz jarritako paragrafoa gehitzen zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

64. artikulua. Gai zerrenda.

Deialdiarekin batera bidaliko den gai zerrenda lehendakariak erabakiko du, Udalbatzaren idazkari nagusiak lagunduta, eta, hartarako, idazkariak behar beste neurri hartuko ditu deialdiko aztergaietako espediente osoak behar bezain arin prest eta aztertuta egon daitezen.

65. artikulua. *Irizpenik gabeko aztergaiak.*

Behar bezain funtsaturiko zergatikoengatik alkateak gai zerrendan proposamendun gairik sar lezake batzorde eskudunaren irizpenik gabe, Udalbatzak, halakoak aztertu aurretik, gehiengo soilez presazkotzat joz gero.

66. artikulua. *Egitura.*

Ohiko bilkurak, normalean, honako egitura hau oinarri hartuta gauzatuko dira:

1. Aurreko bilkura akta onartzea.

2. Erabaki zatia.

2.1. Alkatearen proposamena.

2.2. Gobernu Batzarraren, batzarkideen eta gobernu erantzukizundun zinegotzien proposamenak.

2.3. Talde politikoen proposamenak.

2.4. Herritar ekimeneko proposamenak.

2.5. Herritarren Partaidetzako Araudian aurreikusitako proposamenak.

3. Informazio, sustapen eta kontrol jakinarazpena.

3.1. Interpelazioak.

3.2. Agerpenak.

4. Erakunde adierazpenak.

6. Mozioak.

7. Herritarrek egindako galderak.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 66. artikulua 2. puntuari 5. atala gehitzen zaio eta 7. puntu berri bat ere.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

67. artikulua. *Ekimenak kalifikatzea.*

Lehendakariak ekimenen sailkapena aldatuko du, Bozera maileen Batzordeak horretaz erabaki ondoren.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 67. artikulua berridatzi egin da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

3. ATALA. Bilkuren bilakabidea

68. artikulua. *Quoruma.*

Udalbatza legez eratu ahal izateko, korporazioko kideen kopuru legalaren laurdenak bertaratu behar du, eta quorumari eutsi beharko diote bilkura oso-osoan. Nolanahi ere den, ezinbestekoa da Udalbatzaren lehendakaria eta idazkari nagusia edo haien legezko ordezkioak bertaratzea.

69. artikulua. *Aurreko bilkura akta onartzea.*

Bilkuraren hasieran Udalbatzaren lehendakariak galdetuko du ea korporazioko kideren batek deialdiarekin batera banatutako bilkura aktaren gainean esatekorik ba ote duen. Aldaketa eskerik izan ezean, onartutzat joko dute. Aldaketarik eskatuz gero, emendakinak eztabaidatu eta erabakiko dira, baina inondik inora ezingo dituzte erabakiak aldatu.

Akta bakoitzean aurreko akta irakurri eta onartu dela adierazpenarekin batera egindako ohar eta aldaketak ere jasoko dira.

70. artikulua. Aztergai hurrenkerak

Aztergaiak gai zerrendako hurrenkeraren arabera aztertuko dituzte, elkarren segidan, eta zio funtsatua dagoela besterik ezingo dute aldatu, lehendakariak, berez edo korporazioko kideren batek eskatuta, proposatu eta Udalbatzak berak onarturik.

Gai batzuen artean harremanik egonez gero, batera eztabaida daitezke, lehendakariak hala erabakiz gero, nahiz eta haietako bakoitza banan-banan bozkatu beharko duten.

71. artikulua. Zerrendatik kendutako edo mahai gainean utzitako aztergaiak

1.- Ekimenen egileek ekimenok ken litzakete aztergaia eztabaidatzen hasi aurretik.

2.- Zeinahi gai mahai gainean gera daiteke, dela espediente beste dokumentu batzuekin osatzeko, dela erabaki aurretik beste jardueraren bat gauzatzeko.

Korporazioko edozein kidek eska dezake, eta gehiengo absolutuz onartu beharko dute.

Interpelazioak, agerpenak eta kontrol mozioak mahai gainean geratuko dira, automatikoki, bilkuran aztertu gabe, ekimena egin duen egilearen taldeko zinegotzirik edo egilea den zinegotzi ez atxikia hartan ez dagoenean.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 71.2 artikuluari 2.paragrafo bat gehitzen zaio eta 71.3 artikulua kentzen da..

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

72. artikulua. Deialdian ez diren aztergaiak.

Baliogabeak izango dira ohiz kanpoko bilkurako deialdian agertzen ez ziren gaien gainean erabakitakoak, baita ohiko bilkurako gai zerrendan ez dagoen gaiaren gainekoak ere, salbuespen izango direla aurretik Udalbatzak berak presazkotzat hartutako gai bereziak, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123.2 artikuluan xedaturiko gehiengoaren botoa dagoela, hau da korporazioko kideen legeko kopuruaren gehiengo osoarena.

Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren edo Interbentzio Nagusiaren nahitaezko txostena behar duten gaiak izanez gero, bertan txosten ematerik ez balute, lehendakariari eskatu beharko diote estudioa atzeratzeko, gaia hurrengo bilkura arte mahai gainean utzita.

Eskabidea betetzen ez badut, Udalbatzaren idazkari nagusiak hala jasoaraziko du berariaz aktan.

II. KAPITULUA. EZTABAIDAK

73. artikulua. Bideratzea.

Lehendakariak bilkura zuzendu ez ezik, saioa ordenan joatea ere zainduko du, eta bere iritziz aztergaia behar bezain arrazoituta dagoela iritziz gero, eztabaida amaituko du.

74. artikulua. Eztabaidatu beharreko eta beharrik gabeko aztergaiak.

Bilkuraren hasieran, lehendakariak, bozeramaleen eskabideak entzunda, eztabaida beharreko eta beharrik gabeko gaiak iragarriko ditu.

Eztabaida beharrik gabeko gaietan, proposamenaren izenburua irakurritakotzat joko dute eta, segituan, lehendakariak boto jarrera eskatuko du, erabakia hartu ahal izateko.

Eztabaida beharreko gaietan, lehendakariak eztabaida abiarazi aurretik, Udalbatzaren idazkari nagusiak onarkizun aurkeztu den proposamenaren ebazpen zatia irakurriko du.

75. artikulua. Abstentzioagatik ez egotea.

Indarreko legeetan xedaturikoaren arabera, korporazioko kideren batek gai bat aztertzen eta bozkatzen abstenitu behar izanez gero, osoko bilkuratik joan beharko du aztergaia eztabaidatu eta erabaki bitartean.

76. artikulua. Nola bideratu eztabaida.

Udalbatzaren lehendakariak **parte-hartze aldiak betetzen direla zainduko du. Bilkura bakoitzeko parte-hartze aldiak lehendakariak ezarriko ditu, Bozeramaileen Batzordeak bilkura bakoitzera begira horretaz erabaki ondoren.**

Proposamen eta proposizioen eztatbaida hasiko da ekimen-egilearen txandarekin, eta, segituan, talde bakoitzak txanda bakarra izango du erabaki edo proposamen erabakiaren aurkako edo aldeko jarrera azaltzeko. Taldeen azalpenak ordenatuko dira kide **gutxien dituenetik gehien** dituenara.

Taldeen interbentzioak amaituta, ekimen-egileak beste txanda bat izango du.

Zuzenketarik ez balego, eztatbaida amaitutzat jo eta bozketara joko dute.

Zuzenketarik egonez gero, arau honetan zuzenketak aztertu eta bozkatzeko jardunbidea bete beharko dute.

Zuzenketa eztatbaidatzen eta bozkatzen amaitutakoan, talde bakoitzak txanda bana edukiko du, azterkizun dagoen ekimen edo proposamen ekimenaren egileak ekingo diola.

Noiznahi izango da beharrezko lehendakaritzak hitz egiteko baimena ematea.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 76 artikuluari 1 eta 2.paragrafoak aldatzen zaizkio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

77. artikulua. Aipuen ondorioz parte hartzea.

Lehendakariaren iritziz eztatbaida saioan aipuren batek zinegotziren baten pertsona duintasunean eragina izan dezakeen iritzirik edo zehaztasun faltarik ekar badezake, aipatuari aukera eman diezaioke hiru minutuko txanda erabiltzeko, aztertzen ari den gaiaren muinean sartu gabe, egin dizkioten aipuei erantzuteko.

Lehendakariak txanda hori aipamenetara mugatzen dela zainduko du.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 77 artikuluari 2.paragrafo bat gehitzen zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

78. artikulua. Orden eragozpena.

Korporazioko kideek noiznahi eska dezakete hitza eztatbaidan orden eragozpenen bat adierazteko, hartarako, aplikatzea eskatzen den araua aipatuta. Lehendakariak egoki iritzi bezala jokatu du, eta, ondorioz, ezingo da eztatbaidarik sortu.

79. artikulua. Udalbatzaren idazkari nagusiak hitza hartzea.

Lehendakariak hala eskatuta, **bere kabuz edo Udalbatzako edozeinek deituta**, Idazkaritzako eta Fondoen Interbentzioko funtzionario arduradunek ere hitza har lezakete, aholku emateko edo kontzeptuak argitzeko Aipatu funtzionarioen ustez, eztatbaidan, zinegotziek ez dakitela, aipatu gaiaren legetasuna edo aurrekontu ondorioan eraginik izan dezakeen auziren bat agertu bada, Lehendakaritzari hitza eska diezaioke hala jasoarazteko.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 79 artikulua aldatzen da letra lodiz jarritakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

III. KAPITULUA. BOZKETA

80. artikulua. Botoaren izaera eta zentzua.

1.Zinegotzien botoa pertsonala eta ordezkazina da.

2.Botoa aldekoa edo aurkakoa izan daiteke, eta korporazioko kideek abstentziora jotzeko aukera ere izango dute.

3.Bozketaren ondorioei dagokienez, abstenitutzat joko dira gai baten eztatbaida hasi eta aulkien mailatik joan diren zinegotziak, bozkatzerakoan aulkira itzuli ezik. Bilkura aretora bozkatu aurretik itzuliz gero, botoa ematea izango dute.

4.Bozketan berdinketarik gertatuz gero, beste bozketa bat egingo dute, eta berdinketak bere hartan iraunez gero, alkatearen kalitatezko botoak erabakiko du.

81. artikulua. Bozketa motak.

1.Bozketak aho bateko adostasunez, eskua altxatuta, zinegotzia izenez deituta edo boto isilpekoz edo sekretuz egin daitezke.

2.Izena esanda egiten diren bozketetan, zinegotziei alfabeto hurrenkeraren arabera deituko diete, azken, lehendakariari, eta korporazioko kide bakoitzak, izena aipatzen diotenean, ozenki, «bai», «ez» edo «abstentzioa aldarrikatuko du.

3.Isilpekoak boto paperaren bitartez egiten dira, eta korporazioko kide bakoitzak berea kutxan utziko du.

82. artikulua. Bozketa sistema.

1.Bozketa arrunta aho bateko adostasunez edo eskua altxatuta gauzatuko da.

Gai zerrendako aztergaia irakurritakoan eztabaidarik gertatu ezean edo eztabaidan talde batek ere aurkeztu den proposamenarena urkako jarrerarik adierazi ezean, lehendakariak aho batez onartu dela iritziko dio. Inongo zinegotzik bozkatu beharreko gaia onartzearen edo bozkatzearen aurka ezer adierazi ezean, proposamena aho batez onartuta geldituko da.

Zinegotziren bat aurka agertu edo eskua altxatuta bozkatzeko eskatuz gero, alkateak bozketa abiaraziko du, eta, hasieran, alde diren zinegotziei eskua jasotzeko eskatuko die, gero, aurka daudenei eta, azkenik, abstenitzen direnei.

2.Izenen arabera bozketa udal talde batek eskatu ez ezik, Udalbatzak bozketa arruntean gehiengo soilez onartu beharko ere du.

3.Isilpeko bozketa alkatea aukeratzeko erabiltzen da.

Bozketa isilpekoa izango da Konstituzioak aipatzen dituen ohore eskubidea, norberaren edo familiaren intimitatearenak edo irudiarenak eraginda egonez gero, gehiengo absolutuz hala erabakiz gero.

83. artikulua. Erabakiak hartzeko quoruma.

1.Udalbatzak, oro har, bertaraturiko zinegotzien gehiengo soilez erabakitzen du. Gehiengo soila izango da aldeko botoak aurkakoak baino gehiago izanez gero.

2.Gehiengo absolutua dagoela ulertuko da aldeko botoak korporazioko kideen kopuru legalaren eta bat baino gehiago izanez gero.

3.Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 162. artikuluko lehen pasartean xedatutako jardunbidearen arabera, izendatzeko moduko bestelako hautagairik edo ordezkorik geratu ezean, indarreko legeek jasotako bertaratze eta bozketa quorumak, besterik gabe, geratzen diren korporazioko kideen kopuruari dagokiola ulertuko da, aipatu hauteskunde xedapenean ebatzitakoaren arabera.

84. artikulua. Unea eta era.

1.Gaia aztertzen amaitutakoan, bozkatzeko hasiko dira.

2.Bozketari ekin aurretik, lehendakariak bozketaren nondik norakoak eta bozkatzeko modua labur azalduko ditu.

3.Bozketa hasitakoan, ezingo da ezergatik ere eten. Bozkatu bitartean lehendakariak ez dio hizpidea inori emango, eta zinegotziak ezingo dira aretora sartu edo handik irten.

4.Bozketa arrunta egindakoan, lehendakariak zer erabaki duten adieraziko du.

5.Bozketa izenaren arabera egiten badute, hura amaitu ondoren, Udalbatzaren idazkari nagusiak botoak zenbatu ez ezik, ozenki adieraziko du emaitza, eta, gero, lehendakariak zer erabaki duten aldarrikatuko.

85. artikulua. Botoa azaltzea.

Erabakia aldarrikatuta, eztabaidan parte hartu ez duten taldeek, edo eztabaidaren ondoren botoaren zentzua aldatu dutenek, lehendakariari beren botoa azaltzeko txanda eska diezaioke.

Lehendakaria arduratuko da botoa azaltzeko txanda soilik horretarako erabiltzen dela zaintzeaz.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 85 artikuluari 2.paragrafo bat gehitzen zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

IV. KAPITULUA. AKTAK ETA BILKURA EGUNEROKOA

86. artikulua. Aktak.

1.Udalbatzaren idazkari nagusiak bilkura bakoitzaren akta egingo du eta, gutxienez, honako hauek jasoko ditu:

- a)bilkura zein egunetan eta ordutan hasi eta amaitu zen;
- b)lehendakariaren eta beste partaideen izen-deiturak;
- c)landutako gaien zerrenda;
- d)bozketak eta hartutako erabakiak.

Aktak, gainera, labur jasoko ditu botoa funtsatzeko emandako iritzia, aktak bertan edo bilkura egunerokoan interbentzioak osorik ere jaso ahal izateaz gain.

2.Aktak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan erredaktatuko dira.

87. artikulua .Bilkura Egunerokoa

Udalbatzaren lehendakariak ebatzita eta Udalbatzaren idazkari nagusiak proposaturik, Udalbatza Bilkuren Egunerokoa sortuko da.

Aipatu Egunerokoa ofiziala izango da eta Udalbatzaren osoko bilkuretan izan diren interbentzio eta hartutako erabakiak osorik jasoko dira, gorabeheren berri ere emanda.

V. KAPITULUA. DIZIPLINA

88. artikulua. Hizpidea erabiltzea.

1.Zinegotziek hizpidea erabiliko dute lehendakariak hartarako baimenik emanez gero.

2.Hizpidea lortuta, lehendakariak baino ezingo die hitza galarazi, dela denbora amaitu dela adierazteko, gaiari heltzeko eskatzeko edo orden auziren batengatik, dela hizpidea bera kentzeko, izendatutako denbora amaitutakoan eta birritan amaitzeko eskatu ondoren.

89. artikulua. Behar bezala jokatzeko eskeak.

1.Lehendakariak korporazioko edozein kideri behar bezala jokatzeko eska diezaioke honako hauetakoren bat gertatuz gero:

- a)Korporazioari, korporazioko kideei, erakunde publikoei eta beste edozein erakunderi edo pertsonari zor zaien gizalagearen aurkako hitzak edo kontzeptuak adieraztea.
- b)Bilkurak etetea edo haietako ordena nola edo hala itxuragabetzea.
- c)Hizpidea baimenik gabe edo kendutakoan erabiltzen ahalegintzea.

2.Bilkura berean hirutan behar bezala jokatzeko eskatuz gero, bigarrenean hirugarren deia nolako ondorioak izango dituen gogorazita, lehendakariak aretotik bidal lezake, kanporaketa gauzatzeko neurri egokiak hartuko dituela. Kanporatuz gero, ezingo da bilkura horretara itzuli.

VI. TITULUA

NOLA HARTU ERABAKIAK

I. KAPITULUA. PROPOSAMEN ETA PROPOSIZIOAK

90. artikulua. Ekimena.

1.Udalbatzak erabakiak hartuko ditu legeek izendatzen dizkion ahalmenak erabilita, alkatearen, Gobernu Batzarraren, kideen, talde politikoen eta herritarren ekimenez.

2.Alkatearen eta gobernu taldeko beste kideen erabaki proposamenak, bakoitzari eskuordetu dioten eskumenen esparrukoak, proposamen deituko dira.

3.Talde politikoen eta herritar ekimenen ondoriozko proiektuei proposizio deritzete.

91. artikulua. Aurkeztea.

1.Udalbatzak erabaki beharreko espediente bateko administrazio prozedura amaituta, administrazio unitatearen arduradunak erabaki proiektua egindakoan, proposamenak eta proposizioak aurkeztu daitezke.

2. Proposamenak bilkuran bilkurako deialdiarekin batera doan gai zerrendan sartu ahal izateko, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian aurkeztu beharko dira gutxienez lanegun bete lehenago.

3. Proposamenak eskudun batzordea bilkuran elkartu baino zazpi lanegun lehenago aurkeztu beharko dira, gutxienez.

4. Aipatu epea beteta aurkez daitezke administrazio espedienterik gabeko gaien gaineko proposamenak ere, dena delako gaiaren gainean Udalbatzak erabakimenik edukiz gero.

Erabakirik hartuz gero, eta beharrezkoa balitz, administrazio espedienteari ekingo liokete.

5. Administrazio espedienteak abiarazi eta oraindik amaitu gabeko gaiei buruzko proposamenek, hain zuzen, berori amaitzeko erabaki proposamena jaso beharko dute, Udalbatzan eztabaidatu eta hasierako zein behin betiko bozketa egin ahal izateko; betiere, aldeko nahitaezko txostenak edukita.

6. Administrazio espedienteak abiarazi eta amaitutako gaiei buruzko proposamenek, hain zuzen, erabaki proposamena jaso beharko dute, Udalbatzan eztabaidatu eta hasierako zein behin betiko bozketa egin ahal izateko; betiere, aldeko nahitaezko txostenak edukita.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 91 artikuluari 5. eta 6. paragrafoak gehitzen zaizkio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

92. artikulua. Irizpen beharra.

Proposamen eta proposizioek eskudun Udalbatzaren batzordearen irizpena eraman beharko dute.

II. KAPITULUA. ZUZENKETAK

1. ATALA. Motak

93. artikulua. Motak.

1. Zuzenketa erabaki proposamen, proposizio edo **ohiko mozio bat** aldatzeko proposamendua da, talde bozeramale batek, kide atxiki gabeek edo erabakia hartzeko ekimenaren egileak aurkeztua.

Zuzenketa aurkeztutakoan, korrekzioak egin lekizkioke Udalbatzaren idazkari nagusiak zuzenketarako adierazitako mugakizun juridikoetara egokitzeak.

2. Zuzenketak Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian aurkeztuko dituzte, taldearen bozeramaleak lehendakariari bidalitako idazki bidez, prestatzen den egutegian ezarritako ordua baino lehenago.

Gainera, arau honetan ezarritako terminoen arabera in voce zuzenketak ere aurkez litezke.

3. Zuzenketak osokoak edo zatikoak izan daitezke. Bestalde, zerbait kendu, aldatu edo gehitzekoak zein adostuak izan daitezke. Erabakia hartzeko ekimenaren egileek, gainera, alderdi teknikoak korrejitzeak zuzenketak aurkez ditzakete.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 93 artikulua 1. atala aldatzen da letra lodiz markatutakoaren arabera. Beste gainontzeko bere horretan mantentzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

94. artikulua. Zuzenketa adostuak.

Zuzenketa adostua beste zuzenketa baten edo batzuen gainean bozeramaleren batek edo batzuek hartutako akordioa da, Udalbatzari azterkizun aurkeztu zaion behin betiko zuzenketa proposamenaren gaienakoa, proposamenaren zati bati buruzkoa edo zuzenketaren helburu zen proposamen osoari buruzkoa.

Zuzenketa bat adostu ahal izateko, zuzenketaren aurkezleak ados agertu behar du.

2. ATALA. Nola izapidetu eta eztabaidatu zuzenketak

95. artikulua. Izapidetzea.

In voce zuzenketak soilik onartuko dira adostuak izanez gero edo huts teknikoak zuzendu nahi izanez gero.

Proposamen-egilea egon ezean, Udalbatzak ez du haren zuzenketa aztertuko, bilkuran dagoen beste korporazioko kide batek bere egiten ez badu.

Zuzenketa aztertzen hasi aurretik, hura aurkeztu zuen lagunak zerrendatik ken lezake.

96. artikulua. Eztabaida.

1. Zuzenketa eztabaidaren hasieran proposamen-aurkezleak hitz egingo du. Segituan, talde politiko bakoitzak hitz egingo du eta, amaitzeko, proposamen-aurkezleak berriro hitza hartuko du.

2. Aurkeztu diren zuzenketak proposamen-aurkezlearen taldeak duen ordezkariaren arabera (handitik txikira) aztertuko dira, erroldan aurkeztu zituzteneko hurrenkeran.

3. Eztabaida osoko zuzenketetatik hasiko da, eta, eztabaida amaitu ondoren, halakoen bozketa egingo dute. Osoko zuzenketaren bat onartuz gero, gaia, besterik gabe, mahai gainean geratuko da, espediente amaitu eta artxibatzeko edo irizpen eta zuzenketa berriak prestatzeko.

4. Segituan, zatiko zuzenketak banan bana aztertuko dituzte. Zatiko zuzenketa bakoitza eztabaidatu ondoren, bozkatu egingo dute. Onartuz gero, aurkeztutako proposamen edo proposizioa zuzendu beharko dute.

Zatiko zuzenketa bat onartuz gero, alderdi beraren gaineko beste zatiko zuzenketa guztiak indargabetuko dira, beraz, ez dira aztertuko.

5. Zuzenketa txanda amaituta, ondoriozko proposamen edo proposizioa eztabaidatuko dute.

6. Bozera male batek aurkeztutako osoko edo zatiko zuzenketa guztiak, aurkezleak eskatuta edo baimenduta, batera eztabaidatu eta/edo bozka litezke.

Ezingo da zuzenketa zatirik bozkatu Erroldan aurkezterakoan zuzenketa jasotzen duen idatzian idatziz hala adierazi ezean.

VII. TITULUA

INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROL TRESNAK

I. KAPITULUA. INTERPELAZIO ETA MOZIOAK

97. artikulua. Interpelazioak.

1. Zinegotziek interpelazioak egin diezazkiekete udal gobernuari, alkateari zein kideetako bakoitzari, udal gobernuaren zio edo helburuei buruz, gobernuaren politikaren alderdi jakinak kontuan.

2. Interpelazioak Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian aurkeztuko dituzte, alkateari bidaliak, dena delako bilkurako egutegian xedatutako ordu muga baino lehen.

Talde bakoitzak gehienez bi interpelazio aurkez ditzake bilkura bakoitzeko, Udalbatzak aztertzeko. Zinegotzi ez atxiki gabe bakoitzak bat aurkeztu ahal izango du

Bilkurako gai zerrendan jasotzeko moduan egongo dira Bozera maleen Batzordeak lehendik Udalbatzak aztertzeko aukeratutako interpelazioak.

3. Interpelazioak Udalbatzaren aurrean prozedura hau erabilita gauzatuko dira: Interpelazioa egiten duena hasiko da azalpen txanda batekin eta jarraian interpelatutakoak erantzungo dio: Alkateak edo izendatutako zinegotziak. Jarraian, interpelazioa egin duenak txanda izango du eta interpelatutakoak txanda itxiko du.

* 2020-10-29ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 97. artikulua 3. atalari dagokion edukia aldatzen da.

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/euskera/gao/2020/11/19/e2005864.htm>

4. Lantzeko hurrenkera, **Udalbatzaren Erregistroan sartu** diren hurrenkera bera izango da.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 97 artikulua 2. atalari paragrafo bat gehitzen zaio eta 3. eta 4. puntuak aldatu egiten dira, letra lodiz adierazitakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

98. artikulua. Mozioak

1. Mozioak kontrolekoak edo ohikoak izan daitezke.

2. Interpelazioa egin duen edozein zinegotzik kontroleko Mozioa aurkeztu ahal izango du, Osoko Bilkuran edo Batzordean landutako aldez aurreko interpelazio bakoitzeko, eztabaida eta Udalbatzak jarrera har dezan sustatzeko, interpelazioan landutako gaiei dagokienez.

Mozioa aurkeztu ondoren, korporazioko kideak aldatu ahal izango du osoko bilkuraren egutegian ezarritako epeen barruan.

Ezin zaie zuzenketarik aurkeztu kontroleko Mozioei.

Udal talde bakoitzak, osoko bilkura bakoitzeko, gehienez ere talde hori osatzen duten zinegotzi adina kontrol Mozio aurkeztu ahal izango ditu.

3. Edozein taldek aurkeztu ahal izango ditu Mozio Arruntak eztabaida sustatzeko eta politika- eta gobernu-ekintza bultzatzeko. Talde bakoitzak bi Mozio Arrunta aurkeztu ahal izango ditu gehienez osoko bilkura bakoitzeko.

Mozio arruntei zuzenketak aurkeztu ahal zaizkie Araudi honek ezarritakoaren arabera.

4. Proposamena egin duen taldea izango da txandan aurrena. Haren ondoren parte hartuko dute gainerako Taldeek, txikiena hasita handiena arte. Jarraian proposamena egin duen taldeak izango du txanda eta Udal Gobernua osatzen duten taldeko edo taldeetako kide den korporatibo bati dagokio itxiera.

* 2020-10-29ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 98. artikulua edukia aldatzen da.

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/euskera/gao/2020/11/19/e2005864.htm>

99. artikulua. *Ez onartzea eta atzera batzordera bidaltzea.*

Lehendakariak, Bozeramaileen Batzordeak aurretik hala erabakita, ez ditu interpelazioak izapidetzera onartuko honako hauetakoren bat izanez gero:

a) Udalaren eskumenetatik kanpoko gaien gaineko interpelazioak.

b) Interpelaziogilearen edo beste banakoren baten interes pertsonal hutsezko interpelazioak.

c) Aurrekarietan edo formulazioan gizabidearen aurkako hitzak edo kontzeptuak dakartzaten interpelazioak.

d) Kontsulta juridiko hutsa dakartzaten interpelazioak.

e) Aurreko azken bi hilabeteotan aurkezturiko beste interpelazio bat errepika dezaketenak.

Halaber, Bozeramaleen Batzordeak aurretik hala erabakita, batzordean aztertzea bidalitako mozioak ere aurkeztu litezke.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 99. artikulua e) edukia aldatzen da letra lodiz adierazitakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

II. KAPITULUA. UDALBATZAREN AURREAN AGERTZEA

100. artikulua. *Helburua eta hartzailea.*

Gobernu arduraren bat duten zinegotziak eta zinegotzi ez diren Gobernu Batzarreko kideak Udalbatzaren aurrera ager daitezke beren eskumeneko gairen baten gainean argibideak eskaintzera, dela beraiek eskatuta, dela talde politikoren batek eskatuta.

101. artikulua. *Gaitzestea eta atzera batzordera bidaltzea.*

Lehendakariak, Bozeramaleen Batzordeak aurretik hala erabakita, ez ditu agerpenak izapidetzera onartuko 99. artikuluan interpelazioen gainean aipaturiko baldintza berberetan.

Halaber, Bozeramaleen Batzordeak aurretik hala erabakita, batzorderako eskatutako agerpenak ere bidali litezke.

102. artikulua. *Aurkeztea eta gai zerrendan sartzea.*

Agerpen eskabideak, agerpenaren zio den aztergaia zehaztuta, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusia aurkeztu beharko dira bilkura egutegian aipatutako epeetan.

Gehienez, bi agerpen talde eta saio bakoitzeko.

Bilkurako gai zerrendan jasotzeko moduan egongo dira Bozeramaleen Batzordeak lehendik Udalbatzara bidaltzeko aukeratutako agerpenak.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 102. artikuluari paragrafo bat gehitzen zaio letra lodiz adierazia.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

103. artikulua. Bilakabidea.

Agerpenetan honako izapide hauek bete beharko dituzte:

a) Talde politikoak edo ekimenaren zinegotzi egileren batek ahoz azaltzea, agerpenaren zio diren zergatikoak zehazteko. Agertutakoak eskaturiko agerpenetan izapide hura ez da beteko.

b) Agertutakoaren interbentzioa.

c) Talde Politikoetako ordezkariak parte hartuko dute jarrerak azaltzeko **edo oharpenak egiteko, txikitik handira, eta ekimena proposatu eta idatzi duen Taldeak itxiko du txanda.**

d) Agertutakoaren erantzuna.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 103. artikulua c) edukia aldatzen da letra lodiz adierazitakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

III. KAPITULUA. ERAKUNDE ADIERAZPENAK

104. artikulua. Esparrua eta aurkezpena

Gaiek herritarren interesei edo pertsonen oinarritzko eskubideen defentsari edo babesari modu orokorrean eragiten badie, Bozeramaileen Batzordeak, kideen erdiek gehi batek alde bozkatuta, boto haztatuaren bidez Udalbatzaren legezko kideen bi heren ordezkatzuz gero, Erakunde Adierazpenak onartu ahal izango dituzte, Bozeramaile batek edo batzuek, edo Lehendakariak hala eskatuta.

Aurreko paragrafoan zehaztutako gehiengo berarekin, Bozeramaileen Batzordeak osoko bilkuran lantzea proposatu dezake salbuespen moduan. Osoko Bilkuran onartzeko Udalbatzako legezko kideen bi herenak beharko dira.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 104. artikulua berridatzi eta honela geratu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

IV. KAPITULUA. ZENTSURA MOZIOA ETA KONFIANTZA GALDEA

105. artikulua. Zentsura mozioa

Hauteskunde legean xedaturiko terminoetan, alkatea zentsura mozio bidez kargutik ken dezakete; mozioa, gutxienez, korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak proposatu behar du, baita Alkatetzarako hautagai bat proposatu ere, edozein zinegotzi izan daitekeela baldin eta mozio proposamenean idatziz eta berariaz onartu badu.

106. artikulua. Konfiantza galdea.

Indarreko hauteskunde legean proposaturiko terminoetan, Alkateak konfiantza galdea egin diezaioke Udalbatzari, honako puntu hauetakoren bat onartzeari edo aldatzeari lotuta:

a) Urteko aurrekontuak.

b) Organoen araudia.

c) Zerga ordenantzak.

d) Udalerrri eremuko hirigintza planeamendu orokorreko tresnen izapidetzea amaitzen duen onarpena.

VIII. TITULUA

NOLA ONARTU ARAUAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

107. artikulua. Aplikazio eremua.

Honako titulu hau aplikatuko da ordenantza, araudi eta xedapen orokorrak prestatzeko prozeduran zein halakoen alaketetan, salbuespen dela honako titulu honetan aurrekontuak izapidetu eta onartzeaz xedaturikoa.

108. artikulua. Arautze ekimena.

1.Udal arauak onartzeko ekimenaren arduradun dira honako hauek:

a) Tokiko Gobernu Batzarra.

b) Udal taldeak.

c) Herritarren ekimena.

2. Proiektu moduan izapidetuko dira Gobernu Batzarrak aurkeztzen dituenak. Gainerako guztiak arau proposizio moduan izapidetuko dira.

109. artikulua. Epeak.

1. Udalbatzaren lehendakariak, Bozeramaleen Batzordeak aurretik hala erabakita, titulu honetan xedaturiko epeak luzatzea edo laburtzea ebatz dezake, hala egitea funtsatzen duen zergatikorik egonez gero.

2. Salbuespenetan izan ezik, luzapenak ezingo dute jatorrizko epea bera gainditu, ezta murrizketek jatorrizko epearen erdia ere.

II. KAPITULUA. PROIEKTUAK

110. artikulua. Proiektu dokumentazioa

Proiektuak **elebidunak** izango dira eta proiektuek lagun eramango dute eskudun administrazio unitateak egindako administrazio espedientea, Lege Aholkularitzaren nahitazeko txostena ere jasota.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 110. artikulua aldatzen da letra lodiz adierazitakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

Kontsulta publikorako izapidearen zehaztapenak eta emaitza jasoko dira espedientean.

Baliozkoa izan dadin, ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago igaro kontsultaren deialdia egiten denetik tokiko gobernu batzarrak arau proiektua onartu arte.

Epe hori 12 hilabetetara luzatuko da kontsultaren deialditik Udalbatzaren agintaldiaren amaierara arte 6 hilabete baino gutxiagoko tarte badago.

* 2017-06-29ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 110. artikulua aldatzen da letra lodiz adierazitakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2017/11/02/e1707438.htm>

111. artikulua. Hasierako onarpena.

1. Gobernu Batzarrak arautze ekimena abian jarrazita, proiektua eta espedientea Udalbatzaren idazkari nagusiari bidaliko dizkiote, eta, hark eskudun batzordera igorriko du, batzordean zuzenketak aurkezteko hamar eguneko epea ere abiaraziko duela.

Epea ez da hasiko talde guztiak proiektuarekin ados egonez gero. Hala izatekotan, zuzenean joango da batzordera, irizpena jasotzera.

2. Batzordean aztertu aurretik, aurkeztutako zuzenketei buruzko txosten juridiko bat egin beharko da.

3.Zuzenketak eztabaidatu ondoren, proiektua aldatuta geratuko da batzordeak onartutako zuzenketen ondorioz, beraz, ondoriozko proiektuaren gaineko irizpena prestatuko eta Udalbatzara bidaliko dute hasierako onarpenerako.

4.Talde politikoei eta kide atxiki gabeek, eskudun batzordeak irizpena bukatu eta hurrengo bi egunotan, idatziz jakinarazi beharko dute batzordeak aztertu, bozkatu eta irizpenean jaso ez dituen zuzenketatik zein defendatu nahi duten osoko bilkuran.

5. Proiektuan interesa dutenek modu eraginkorrean parte hartzeko, hasierako onespena baino lehen, proiektua azaltzeko herritarrentzat irekitako jardunaldia deituko da.

Proiektuari buruzko argibideak eman eta, hala bada, hura herritar interesdunei aurkeztean, Herritar Partaidetzaren Araudi Organikoak xedaturikoa beteko da.

111. artikulua bis. Zerga arloa arautzeko proiektuak: Urtero berrikustea.

Zerga arloa arautzeko proiektuak urtero berrikusteko prozesuan izapidetzen direnean, zuzenketak aurkezteko epean gaiari lotutako Proposamen arautzaileak ere aurkez daitezke.

Proposamen arautzaile horiek egin eta gero, hamabost eguneko epea izango da txosten juridikoa eta, beharrezkoa izanez gero, txosten teknikoa eta ekonomikoa ere egiteko. Txostenak egindakoan, hiru eguneko epea irekiko da zuzenketak aurkezteko.

Zerbitzu juridikoei eta, beharrezkoa izanez gero, zerbitzu tekniko eta ekonomikoei ere zuzenketei buruzko txostenak egingo dituzte.

Proposamenak eta Zuzenketak zuzendu ahal izango dira, Udalbatzako Idazkaritza Nagusiak aditzera emandako muga juridikoak betetzearen.

Proiektu eta proposamenei egindako zuzenketei buruzko txostenak amaituta, arau Proiektuetarako ezarritako prozedura beteko da eta Batzordean landuko dira.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 111. artikulua 2. puntua aldatzen da, testu berri bat gehituz. Jatorrizko 2. eta 3. puntuak egungo 3. eta 4. puntua izatera pasako dira. 5. puntua eta 111BIS puntuak gehitzen dira.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

112. artikulua. Jendaurreko informazioa

1.Hasi bidezko onarpen erabakian Udalbatzak jendaurreko informazio epea eta interesatuei aditzeko aldia abiarazteko aginduko du, eta, tokiko araubidearen legediak ebatzi bezala, epeok, gutxienez, hogeita hamar egunekoak izango dira.

2.Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak hasi bidezko onarpen erabakia Gobernu Batzarrera bidaliko du, eskudun unitateak herritarren erreklamazio eta iradokizunak jaso ditzan.

3.Legeek xedaturiko baliabideez iragartzeaz gain, arauaren testua Udalaren web gunearen bitartez ere plazaratuko da.

113. artikulua. Alegaziorik ezean behin betiko onartzea.

Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean eta, beraz, arauaren behin-behingo onarpen erabakia behin betiko bihurtuz gero, Gobernu Batzarrak horren berri emango dio Idazkaritza Nagusiari, organo honek arauzko izapideak bete ditzan Udalbatza hurrengo osoko bilkuran behin betiko onarpenaren jakitun jartzeko.

114. artikulua. Alegazioak daudela behin betiko onartzea.

1.Alegaziorik, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuz gero, Gobernu Batzordeak horiek balioetsiko ditu, baita, balioespenaren ondorioz, proiektua aldatzea edo dagoen-dagoenean uztea erabaki ere.

2. Hasierako testua aldatuta zein aldatu gabe geratuta ere, Gobernu Batzarrak Udalbatzaren Idazkaritza Nagusira proiektu berria eta alegazioen balorazioa jasotzen duen oroitidazkia bidaliko ditu, eskudun batzordeak irizpen eman ondoren, Udalbatzak behin betiko onarpen izapidea bete dezan.

3. Batzordearen izapidean, batzordekideek bost laneguneko epea izango dute zuzenketak aurkezteko.

4. Batzordean aztertu aurretik, aurkeztutako zuzenketei buruzko txosten juridiko bat egin beharko da.

5. Zuzenketak eztabaidatutakoan, batzordeak onartutakoekin proiektua aldatuta geratuko da, beraz, ondoriozko proiektuaren gaineko irizpena prestatuko eta Udalbatzara bidaliko dute behin betiko onarpenarako.

6. Talde politikoek eta kide atxiki gabeek, eskudun batzordeak irizpena bukatu eta hurrengo bi egunotan, idatziz jakinarazi beharko dute batzordeak aztertu, bozkatu eta irizpenean jaso ez dituen zuzenketatik zein defendatu nahi duten osoko bilkuran.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 114. artikulua 4. puntuan paragrafo berri bat gehitzen da. Jatorrizko 4. eta 5. puntuak egungo 5. eta 6. puntuak izatera pasako dira.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

III. KAPITULUA. ARAUTZE PROPOSAMENAK

115. artikulua. Arautze proposamenak.

Proposizioak izapidetuko dira honako araudi honek arau proiektuen gainean xedatutako arauen bitartez, berezitasun hauek jasota:

a) Arau proposameneko ekimen bat, kontsulta publikoa egiteko beharrezko informazio guztia lagun aurkeztuta, hogeita hamar egunean txosten juridikoaren eta, beharrezkoa balira, teknikoaren eta ekonomikoaren zain egongo da. Txosten horiek igorri eta gero, Udalbatzara bidaliko da, ekimena kontuan hartu ala ez erabaki dezan.

Udalbatzak aldeko erabakia hartzen badu, kontsulta publikoa egingo da Udalaren web orriaren bidez, eta, gero, proposatu duen taldeak arau proposamena aurkeztuko du kontsulta deitu eta sei hilabeteko epean. Epe horretan egiten ez badu, ekimena bertan behera geratuko da.

Epe hori 12 hilabetera luzatuko da kontsultaren deialditik Udalbatzaren agintaldiaren amaierara arte 6 hilabete baino gutxiagoko tarte badago. Kasu horretan, aurreko legealdian ekimena bultzatu zuen Alderdi Politikoarekin bat datorren hauteskunde taldeari dagokion Alderdi Politikoak egingo du arau proposamenaren aurkezpena.

* 2017-06-29ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 115. artikulua aldatzen da letra lodiz adierazitakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2017/11/02/e1707438.htm>

b) Proposamena, zioen azalpena eta aurrekariak lagun aurkeztuta, hogeita hamar egunean txosten juridikoaren eta, beharrezkoa balira, teknikoaren eta ekonomikoaren zain egongo da. Txosten horiek igorri eta bertsio elebiduna idatzi ostean, arau proiektuetarako aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

c) Interesatuentzako entzunaldia eta jendaurreko informazio aldia amaituta, Gobernu Batzarrak erreklamazioak, iradokizunak eta alegazioak eskudun udalbatzaren batzordera bidaliko dituzte, beharrezko txostenak egindakoak, haiek balioetsi eta, beharrezko izanez gero, proposizio testu berria prestatzeko.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 115. artikulua aldatzen da letra lodiz adierazitakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

IV. KAPITULUA. HERRITARREN EKIMENA

116. artikulua. Bidaltzea.

Herritarren arautze ekimenak **Herritar Partaidetzaren Araudi Organikoak** xedatutakoa bete beharko du.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 116. artikulua aldatzen da letra lodiz adierazitakoaren arabera.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

V. KAPITULUA. AURREKONTUAK

117. artikulua. Araubidea eta lehentasunak.

Udalaren Aurrekontu Orokorraren proiektua ohiko prozeduraz izapidetuko dute, honako atal honetan ezarritako berezitasunen arabera.

Udalaren Aurrekontu Orokorraren proiektuak izapidetze lehentasuna izango du gainerako administrazio izapideen aldean.

118. artikulua. Proiektua aurkeztea.

Udalaren Aurrekontu Orokorra batzordean izapidetzen hasitzat joko da Gobernu Batzarrak onartutako proiektua bera eta izapidetutako espediente osoa alkateak edo horren zinegotzi ordezkariak eskudun udalbatzaren batzordearen aurrean aurkezteaz batera.

Indarrean dagoen araudian aurreikusitako epean egingo da, hain zuzen, aurkezpena.

Gobernu Batzarrak Aurrekontu proiektuari hasierako onespina eman baino lehen, behintzat, aurrekontu proiektuaren zirriborroaren ildo nagusiak jendaurrean aurkeztuko dira eta web orrian argitaratuko dira, herritarrek jakinaren gainean egon daitezten.

Bozeramaleen Batzordeak, batzordearen lehendakariak proposatuta, administrazio prozedura erkidea arautzeko arauak eta aurrekontuetakoak beterik, izapidetze egutegia proposatuko eta bozkatzera aurkeztuko du, eta horrek lehentasuna izango du Udalbatzaren eta horren batzordeen gainerako lanen aldean. Izapidetzea erraztearren, ponentzia eratu liteke.

Udal taldeek eta zinegotzi atxiki gabeek zuzenketak aurkez diezazkiokete aurrekontu proiektuari Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian, hoguei laneguneko gutxienezko epearen barruan.

Udal taldeek zuzenketak aurkezteko epea amaitu ondoren, proiektuaren jendaurreko bigarren aurkezpena egingo da, Udal Gobernua nahiz zuzenketak aurkeztu dituzten udal taldeak partaide direla gutxienez, baita zuzenketak ere, eta aldi berean, web orrian argitaratuko da, herritarrek jakinaren gainean egon daitezten.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 118. artikuluari 3 paragrafo berri gehitzen zaizkio. Lehenengo biak 1. paragrafoaren bukaeran gehitzen dira eta 3., berriz, artikuluaaren amaieran.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

119. artikulua. Aurrekonturako zuzenketak.

Zuzenketak osokoak edo zatikoak izan daitezke. Osoko zuzenketatzat joko da aurrekontuak itzuli eta goitik behera berregiteko ala proiektua ordezkatzeko testua aurkezten duen zuzenketa.

120. artikulua. Zatiko zuzenketak.

Zatiko zuzenketak erabiliko dira aurrekontuetako programa, artikulua, kontzeptu edo exekuzio oinarriren bat kendu, aldatu edo eranstea.

Azken hiru suposatuei dagokienez, zuzenkizunaren ordezkari proposatzen den testu osoa aurkeztu beharko dute.

121. artikulua. Ordezte edo eranste zuzenketak.

Ordezte edo eranste zuzenketek gastua gehitzea edo sarrerak murriztea balekarte, ordezkari sarrera aurreikuspenak edo gastua kentzeko proposamena ere ekarriko dute, aurrekontuaren orekari eutsi ahal izateko. Zuzenketa bat ere ez da eztabaidatuko aurreikuspena ez badakar.

122. artikulua. Zuzenketak izapidetzea.

Zuzenketak aurkeztuta, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak talde politikoei eta kide atxiki gabeei aurkezten diren zuzenketa guztiak bidaliko dizkie batzordea elkartu baino 48 ordu lehenago, gutxienez.

Epe bera, 48 ordukoa, bete beharko da osoko bilkurarako uzten diren zuzenketarako.

Batzordean, lehenik eta behin, osoko zuzenketak aztertuko dira. Hasieran, atzera itzultzekoak eta, segituan, ordezkotestua aurkeztekoak. Atzera itzultzeko osoko zuzenketa bat baino gehiago egonez gero, multzoan aztertuko dira.

Atzera itzultzeko osoko zuzenketa bat onartuz gero, gainerako zuzenketak indarrrik gabe geratuko dira, eta proiektua atzera itzuliko dute berriro erredaktatzera edo, bestela, Udalbatzak osoko bilkuran aztertzea.

Beste testu bat proposatzeko osoko zuzenketa bat onartuz gero, gainerako zuzenketak indarrrik gabe geratuko dira, eta beste aurrekontu proposamena Udalbatzara bidaliko dute.

Udalbatzarako soilik gordeko dira Ogasun Batzordean aldeztatu edo osorik onartu ez diren zatiko zuzenketak edo, batzordean beste batzuk onartzearen ondorio direnak, beste partida batzuk aldatzea ekartzeagatik.

123. artikulua. Eztabaida

Aurrekontua eztabaidatzeko osoko bilkura hasiko da osoko zuzenketak aztertuz, halakorik balego, aldeko eta aurkako txandak abiarazita. Eztabaida amaituta, osoko zuzenketak bozkatuko dituzte.

Osoko zuzenketak banan-banan bozkatuko dira.

Batera bozka daitezke zuzenketak aurkezten dituzten taldeek hala jokatzeko borondatea adierazten badute horiek aztertuko dituen osoko bilkura hasi aurretik.

Atzera itzultzeko osoko zuzenketa bat onartuz gero, proiektua atzera itzuliko dute, beraz, gaitzetsizat joko dute.

Beste testu bat proposatzeko osoko zuzenketa bat onartuz gero, zatiko zuzenketetarako beste jardunbide bati ekingo diote, eta horiek aurkezteko hamar laneguneko beste epe bat hasiko da.

Osoko zuzenketarik ez balego, edo bozketan aurrera irten ezean, proiektua onartutzat joko da, salbuespen izango direla onarpenaren ondoren aurkezten diren zatiko zuzenketak eztabaidatu eta onartzearen ondorioz aldatzen diren programak, artikulak, kontzeptuak edo exekuzio oinarriak.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 123. artikularen 2. paragrafoa aldatzen da. Gainontzeko 4 paragrafoak (1, 3, 4 eta 5) zeuden bezala mantentzen dira.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

IX. TITULUA

BATZORDEAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN KOMUNAK

124. artikulua. Motak.

1.Udalbatzan Toki Araubidearen oinarriak erregulatzeko legeek xedatutako batzordeak eratuko dira, eta talde politikoei izendatzen dituzten kideek osatuko dituzte, Udalbatzan dituzten zinegotzien batez bestekoan.

2.Udalbatzaren batzordeak iraunkorrak edo aldi baterakoak izango dira.

125. artikulua. Antolamendua.

1.Batzorde bakoitzak lehendakari eta lehendakariorde bana izango ditu, batzordekideen artetik hautatuak eta Udalbatzaren lehendakariak izendatuak.

2.Batzordearen idazkaria Udalbatzaren idazkari nagusia bera edo hark izendatutako funtzionarioa izango da, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko Legearen 122. artikulua xedatutako eginkizunak bete beharko ditu.

Udalbatzaren Idazkaritza Orokorrak amaitutako eta osatutako gaien zerrenda helaraziko dio Lehendakariari, Gai zerrendan sar dezan.

Era berean, Idazkariak espedientean adieraziko du inguruabar hori edo espedientean falta dela.

3. Udalbatzaren batzordeek behar beste giza eta gauza baliabide edukiko dute beren eginkizunak gauzatu ahal izateko, eta bilkurak Udalbatzak berak egoitza duen tokian egingo dituzte.
4. Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak, Udalbatzaren lehendakariak zuzenduta, administratu eta koordinatu beharko ditu aipatu ataleko baliabideak.
5. Bozeramaleen Batzordeari Udalbatzak izendatutako eginkizunak bozeramaleek beteko dituzte batzordeetan.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 125. artikulua 2. puntuari 2 paragrafo gehitzen zaizkio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

126. artikulua. *Jarduna.*

1. Batzordeek jarduterakoan honako arau hauek beteko dituzte:

a) Herritarrei udal-jarduerari buruzko informazio gehiago eman ahal izateko, Osoko Bilkuren Batzordeen bilkurak publikoak izango dira behar bezala akreditatuta dauden komunikabideentzat. Ez da bilkura publikoa izango Batzordeko bozeramaleen gehiengoak hala erabakitzen duenean, baldin eta korporazioko kideen gehiengo oso haztatua ordezkatzeko badu.

Batzorde Iraunkor Orokorren bilkurak streaming bidez emango dira herritarrentzat Udalak gaitutako komunikazio-kanalen bidez.

Batzorde Iraunkor Berezien eta Batzorde Ez Iraunkorren bilkurak streaming bidez ez dira emango korporazioko kideen gehiengo oso haztatua ordezkatzeko duen Batzordeko kideen gehiengoak hala erabakitzen duenean izan ezik.

Lehendakariak, bere ekimenez edo Batzordeko kide baten ekimenez, aldeztu aurretik gonbidatuta, Batzordekoak ez diren pertsonak bertaratu ahal izango dira, dagokien gaiaren inguruan bertaratzea egokitzen jotzen delako.

b) Udal talde guztietako eta Gobernu taldeko aldi baterako langile bana ere joan daiteke.

c) Zuzendaritza organoen tituluak, lehendakariak aurretik baimenduz gero, bilkuretara joatea izango dute, eta hizpidea izan arren, botorik ez dute izango.

Halaber, partaide ez diren batzordeetara ere joan daitezke zinegotziak, eta parte hartzeko eskubidea izango dute, baina ez bozkatzekoa, aurkez litzaketan zuzenketa eta ekimenei dagokienez.

d) Batzordea legez eratu da korporazioko kideen kopuru legalaren laurdena –inoiz ez hiru baino gutxiago– bertaratu gero, batzordearen lehendakariak eta idazkariak edo beren legezko ordezkariak ere egon behar dutela. Quorumari eutsi beharko diote bilkura oso-osoan.

e) Bozketan berdinketarik gertatuz gero, beste bozketa bat egingo dute, eta berdinketak bere hartan iraunez gero, lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

2. Arau honek xedatzen ez dituen alderdietan batzordeei ezarriko zaizkie Udalbatzak batzordeari izendatutakoak.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 126. artikulua edukia aldatzen da letra lodiz adierazitakoaren arabera. Puntu berri bat gehitzen da, b puntu bezala, eta jatorrizko b, c eta d puntuak, c, d eta e puntuak izatera pasako dira. 2. puntua mantentzen da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

* Osoko bilkurak 2024-09-26an hartutako erabaki baten bidez, letra lodiz nabarmendutako terminoetan, 126.1.a) artikulua aldatu da.

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/euskera/gao/2025/03/05/e2501409.htm>

II. KAPITULUA. BATZORDE IRAUNKORRAK

127. artikulua. Motak, eginkizunak eta maiztasuna.

1. Iraunkor izango dira batzorde orokorrak, oro har honako eginkizun hauek betetzeko eratuak:

- a) Udalbatzari azterkizun aurkeztu beharreko gaiak ikertu, irizpenez hornitu edo kontsultatzea.
- b) Alkatearen eta gobernu taldearen gestioaren jakitun egotea, Udalbatzari berari, oro har, dagozkion goragoko kontrola eta fiskalizazioaz gain.
- c) Udalbatzak izendatzen dizkien ebazte eginkizunak.

Batzordeek ohiko bilkurak hilean behin izango dituzte.

2. Batzorde berezi hauek ere iraunkorrak izango dira: Kontuen Batzorde Berezia, Aurrekontua Kontrolatzeko Batzorde Berezia, Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia eta Iradokizun eta Erreklamazioen Batzorde Berezia, eta, normalean, honako arau honek izendatzen dizkien eginkizunak beteko dituzte.

128. artikulua. Eratze erabakia.

1. Agintaldi bakoitzaren hasieran, eta lehendakariak proposatuta, Udalbatzak batzorde orokorrak eta bereziak eratzea erabakiko du.

Prozedura bera erabilita alda liteke, gerokoan, eratze erabakia.

2. Batzorde iraunkorrak eratze erabakiak kontuan izan beharko du 7/85 Legeko X. Tituluak xedatutakoez gain, honako hauek ere izan beharrekoak direla:

—Kontuena.

—Iradokizun eta erreklamazioena.

—Kontratazioa kontrolatzeko eta jakitun egotekoa.

3. Erabakiak zehaztu beharko du zenbat zinegotzik osatuko dituzten batzordeak eta zenbat dagozkion talde politiko bakoitzari, proportzionaltasun hastapena erabilita.

4. Batzorde bereziak sortzeko erabakiak, gainera, ohiko bilkuren maiztasuna ere zehaztuko du.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 128. artikulua 2. puntua kendu da, honakoa aipatzen duena: -Aurrekontua kontrolatzekoa.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

129. artikulua. Eskumena.

1. Batzorde bakoitzak bere eskumeneko gaiak izango ditu langai.

2. Gai bat batzorde baten baino gehiagoren eskumena denean, batzordeen lehendakariak erabaki beharko dute ea bilkura bateraturik egin behar duten edo zein batzordek aztertuko duen. Akordiorik lortu ezean, Udalbatzaren Lehendakariak erabakiko du, **Bozeramaileen Batzordeak gaia aztertu ondoren.**

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 129. artikulua 2. puntua aldatu da letra lodiz nabarmendutako zatian.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

130. artikulua. Izendatzea.

Taldeek batzordekide titularrak eta ordezkioak izendatuko dituzte, baita batzorde bakoitzerako bozeramalea ere. Batzorde bakoitza zehazki nola dagoen eratuta jakinarazi beharko diote Udalbatzari.

131. artikulua. Egitura.

Batzordearen bilkurek honako hurrenkera hau bete lezakete:

a) Aurreko bilkuraren akta onartzea.

b) Gaiak Udalbatzari aurkeztu aurretik irizpenez hornitzea.

c)Udalbatzak izendatuta, batzordeak erabaki beharrekoak:

—Proposamenak.

—Proposizioak.

d)Informazio, sustapen eta kontrol jakinarazpena:

—Interpelazioak.

—Galderak.

—Agerpenak eta alorraren informazioa.

e)Eskeak edo iradokizunak.

132. artikulua. Erabaki irizpena

1.Erabakitzeko jardunbidean, batzordearen irizpenak inor lotu gabe adieraziko du erabakiaren helburu den proposamenarekin ados dagoen ala ez.

2.Batzordeak irizpena egiteko, gehienez ere, hilabetea izango du.

133. artikulua. Batzordearen erabakiak.

Udalbatzaren ordezkari moduan erabaki ahal izateko, batzordeetan proposamen eta proposizioak aurkeztu daitezke, eta halakoak gauzatuko dira honako araudi honetan dagokion tituluak halako ekimenetarako xedaturikoaren arabera.

134. artikulua. Interpelazioak.

1.Zinegotziek interpelazioak egin diezazkiekete udal gobernuari, alkateari zein kideetako bakoitzari, udal gobernuaren zio edo helburuei buruz, gobernuaren politikaren alderdi jakinak kontuan.

2.Interpelazioak Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian idatziz aurkeztuko dituzte, alkateari bidaliak, dena delako bilkurako egutegian xedatutako ordu muga baino lehen.

3.Interpelazioak prozedura hau erabilita gauzatuko dira: Hasieran, interpelaziogileak azalpen txanda izango du, eta segituan interpelatuak erantzungo dio, hau da, alkateak edo alkateak izendatutako zinegotzi ordezkariak. Segituan, interpelaziogileak beste txanda bat edukiko du, eta puntua amaituko da interpelatuaren interbentzioarekin.

4.Udalbatza **Erroldan izaten duten sarreraren arabeko hurrenkeran** eztabaidatuko dira.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 134. artikulua 4. puntua aldatu da letra lodiz nabarmendutako zatian.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

135. artikulua. Batzordean ahoz erantzun beharreko galderak.

1.Zinegotziek galdetu diezaiokete udal gobernuari, edo gobernu kide bakoitzari, argibideak eskatzeko udal ekintza, egoera edo gertaera batetaz, dena delako ekintza eginda zein eginkizun egon daitekeela.

2.Galderak Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian idatziz aurkeztu beharko dituzte eta galdetutakoek idatziz zein ahoz erantzun ditzakete eskudun batzordean.

3.Batzordean ahozko erantzuna jaso nahi izanez gero, eskea dena delako bilkurako egutegian xedatutako ordu muga baino lehen aurkeztu beharko dute, ahozko erantzuna nahi dutela adierazita.

Ahozko erantzuna behar duen galdera aurkezteko idazkiak ezin du gai bat baino gehiago labur eta zehazki aipatu, eta helburu izango du gertaera, egoera edo informazioren bat ala Udalak gairen baten inguruan zer edo zer egin duen edo egingo duen jakitea.

4.Adierazi ezean, galdetzaileak erantzun idatzia nahi duela joko dute. **Idatziz erantzun beharreko galdera hauei erantzuna emateko gehieneko epea hogeita hamar (30) egunekoa izango da, aurkezten diren egunetik.**

* 2017-11-22ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 135. artikulua 4. puntua aldatu da letra lodiz

nabarmendutako zatian.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

5. Galdera aurkezten duen zinegotziak labur galdetu ondoren, udalaren jardura eremu horren ardura duen zinegotziak edo zuzendariak erantzungo dute. **Zinegotzi galdetzaileak segituan berriro galdetzeko edo erantzuteko parte hartzea izango du, eta, azkenik, gobernu taldeko kideak eztabaida amaituko du.**

6. Aztertze hurrenkera izango da Udalbatzaren Erregistroan aurkeztu izanaren hurrenkera bera.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 135. artikulua 6. puntua aldatu da letra lodiz nabarmendutako zatian.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

136. artikulua. Batzordera agertzea.

1. Gobernu ardura duten zinegotziak, zinegotzi ez diren Gobernu Batzarreko kideak eta Udaleko zuzendaritza organoen arduradunak batzordera agertuko dira berek ala zinegotzi batzordekideek eskatuta.

2. Gobernu ardura duten zinegotziak, zinegotzi ez diren Gobernu Batzarreko kideak ager litezke haien eskumeneko agerpenekin zerikusia duten zuzendaritza organoen arduradunekin.

3. Batzorde aurreko agerpenak gauzatuko dira araudi honek Udalbatzaren aurreko agerpenetarako ezarritako izapideen arabera.

137. artikulua. Eskaerak edo iradokizunak.

1. Eskaerak batzordekideek aurkeztutako ekintza proposamenak dira.

2. Idatziz aurkeztu beharko dituzte, eztabaidatuko dituen bilkura deialdia baino hogeita lau ordu lehenago.

3. Eztabaidatu egin litezke, baina ez dira inondik inora bozkatuko. Eztabaida eskatzailearen interbentziotik hasiko da, eta, segituan, gobernu taldeak hitz egingo du.

138. artikulua. Ekimenak aurkeztea eta kalifikatzea.

1. Batzordeetan sartu nahi dituzten ekimenak Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian aurkeztuko dituzte, zein batzordetarako diren aipaturik, dena delako bilkurako egutegian xedatutako epea baino lehen.

2. Batzordearen lehendakariak, Udalbatzaren idazkari nagusiari entzunda, egileak ekimenari emandako kalifikazioa alda lezake, edukia kontuan izanda.

Lehendakariak, gainera, aurkezturiko ekimena ez hartzea erabaki lezake, prozedura beraren arabera, batzordearen jardute eremuko ez dela iritziz gero, segituan, Bozeramaleen Batzordera bidaliko duela organo horrek erabaki dezan zein batzordek duen hura lantzeko eskumena.

Batzorde orokorretako lehendakariak, Idazkaria (edo ordeztan duen Idazkaritzako kidea) eta Udalbatzaren Lehendakaria (edo ordeztan duen Gobernu Batzarreko kidea) hilean behin bilduko dira, batzordeak egin baino lehen, zalantzak edo desadostasunak sor ditzaketen gaiei eta ordutegiei buruz aritzeko

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 138. artikulua 2. puntuari paragrafo bat gehitu zaio.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

III. KAPITULUA. KONTUEN BATZORDE BEREZIA

139. artikulua. Arautzea.

1. Kontuen Batzorde Berezia araudi honek gainerako udalbatzaren batzordeetarako xedatutakoen arabera osatuko, antolatuko eta ariko da.

Bilkuretara Kontu-hartzaile nagusia eta Ogasun gaietarako eskudun alorraren arduradunak izendatzen duen zuzendaritza organoaren burua joango dira.

2.Kontuen Batzorde Berezia batzordea eratzeko erabakian xedaturiko maiztasunaren arabera elkartuko da.

140. artikulua. Eginkizunak.

Kontuen Batzorde Bereziari dagozkio apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzekoak; Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu berreginak, martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretu Legegintzakoak; eta toki erakundeen kontularitza arautzeko gainerako xedapenek berariaz izendatzen dizkioten eginkizunak.

Udalbatzaren batzordeak sortzeko erabakian Kontuen Batzorde Bereziaren eginkizunak finantza eta ogasun gestioa eskumen eremutat izango dituen batzordeari izenda dakizkioke.

IV. KAPITULUA. IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIA

141. artikulua. Osaketa eta eginkizunak

1.Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia udal talde guztien ordezkariak osatuko dute, Udalbatzan dituzten kide kopuruaren batez bestekoan. Auzotarren Defendatzailerik balego, bera ere izango da batzordekide.

2.Batzordeak udal administrazioaren ekintzabidea azter lezake, eta Udalbatzari urteko txostenaren bitartez kexen eta udal zerbitzuen funtzionamenduan antzemandako akatsen berri emango dio, udal administrazioak onartu ez dituen iradokizunak edo gomendioak berariaz aipaturik.

Guztiarekin ere, ohiz kanpoko txostenak ere egin litzake ekintzen larriak edo presak hala iradokiz gero. Ohiz kanpoko txostena prestatuko du edozein batzordekide eskatuta, batzordekide gehienek onartuz gero.

3. Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia, batzorde hori eratzeko erabakian ezarritako maiztasunaz bilduko da. Batzorde iraunkorren araubidearen arabera jardungo du.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 141. artikulua 3. puntua berridatzi eta honela geratu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

142. artikulua. Udal administrazioarekiko harremanak.

1.Herritarra Informatzeko eta Artatzeko Bulegoa herritarrek udal zerbitzuen gainean aurkezturiko iradokizun eta erreklamazioak hartu eta izapidetzeko organo eskuduna da.

2.Herritarra Informatzeko eta Artatzeko Bulegoak Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziari urtean behin txostena aurkeztuko dio bidalitako kexak eta haiei emandako erantzunak zein udal zerbitzuen funtzionamenduan antzemandako akatsak aipatuta, udal administrazioak onartu ez dituen iradokizunak edo gomendioak berariaz jasota. Txostenarekin batera hartzen dituen iradokizun eta erreklamazioen kopia ere bidaliko du, baita halakoei emandako erantzunena ere.

3.Udal gobernuaren eta administrazioaren organo guztiak behartuta daude Iradokizun eta Erreklamazio Batzordeari laguntzera Herritarra Informatzeko eta Artatzeko Bulegoaren bitartez.

4.Batzordekide guztiek zuzenean eskura ditzakete aurkeztu diren erreklamazio edo iradokizunak, baita halakoei emandako erantzunak edo izapidetze egoeraren berri ere.

V. KAPITULUA. AURREKONTUA KONTROLATZEKO BATZORDE BEREZIA

143. artikulua.

144. artikulua.

Kendu egiten dira

VI. KAPITULUA. KONTRATAZIOA KONTROLATZEKO ETA JAKITUN EGOTEKO BATZORDE BEREZIA

145. artikulua. Izaera eta helburua.

1.Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia udal administrazio publikoaren kontratu bidezko jarduerak kontrolatzeko eta zaintzeko organoa da.

2.Batzordeak helburutzat du kontratazio publikoaren publizitate, mugagabeko lehia, objektibotasun, gardentasun eta eraginkortasun hastapenak bermatzea.

3.Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia araudi honek xedatutakoen arabera osatuko, antolatuko eta ariko da.

4.Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia batzordea eratze erabakian xedaturiko maiztasunaren arabera elkartuko da.

5.Bere ahalmenak erabili ahal izateko, Donostiako Udal Administrazioaren kontratazio organoek, erakunde autonomiadunek, enpresa erakunde publikoek eta udalaren merkataritza baltzuek egindako kontratuen berri emango diote.

6.Udalbatzaren batzordeak sortzeko erabakian Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia eginkizunak finantza eta ogasun gestioa eskumen eremutat izango dituen batzordeari izenda dakizkioke.

146. artikulua. Eskumenak.

Donostiako Udal Administrazioaren kontratazio organoek, erakunde autonomiadunek, enpresa erakunde publikoek eta udalaren merkataritza baltzuek egindako kontratuei dagokienez, Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia honako eskumen hauek izango ditu:

a) Bere aplikazio eremuko organoek izenpeturiko kontratuak analizatu eta, horren ondorioz, txostena ematea.

b) Donostiako Udal Administrazioaren kontratazio organoei, erakunde autonomiadunei, enpresa erakunde publikoei eta udalaren merkataritza baltzuei halakoek izenpeturiko kontratuen dokumentuak eskatzea.

c) Udal Administrazioaren zerbitzuan egonda, lehiaketa prozesuren batean parte hartutako funtzionario edo langile kontratu guztiei gai jakinen baten gaineko argibideak ematera agertzeko eskatzea edo txosten idatzia emateko eskatzea. Halaber, eskatu ere egin dezake zinegotziak edo udalak, erakunde autonomiadunek, enpresa erakunde publikoek eta udalaren merkataritza baltzuek egindako kontratuak gestionatzeko ardura duten zuzendaritza organoen titularrak agertzeko.

147. artikulua. Urteko oroitidazkia.

1. Batzordeak ekintzen urteko oroitidazkia prestatuko du, eta dokumentu horretan batzordeak egiten dituen lanak jaso ez ezik, kontratazio prozedurak hobetzeko eta baliabide jendaurrekoak zentzuz erabiltzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak ere jasoko ditu.

2. Oroitidazkia Udalbatzara bidaliko dute.

VII. KAPITULUA. BATZORDE ALDI BATERAKOAK ETA PONENTZIAK

148. artikulua. Sorrera.

Batzorde aldi baterakoak zeregin jakin baterako, zerbait ikertzeko, proposamenak prestatzeko edo antzeko helbururen baterako eratzen dira, Alkatetzak, Tokiko Gobernu Batzarrak, udal talde batek proposaturik edo Udalbatzak erabakita, eta ez dute ebazmenik.

Araubidetzat erabiliko dituzte Kapitulu honetako manuak, eratze erabakia eta, hura osatzeko, batzorde iraunkorrek erregulatzeko arauak.

Batzordeko edozein kidek eskatu eta gehiengo osoak onartuta Udalari lotuta dagoen edo ez dagoen edozein deitu daiteke, korporazioko kidea edo zuzendaritza organoa ez dena.

Gehienez hilabete batean hasierako saioa deitu beharko da.

Berez iraungiko dira sorrarazi zituzten zereginak amaitzeaz batera.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 148. artikulua aldatu da, alde batetik, bi paragrafo berri sartuta, hirugarrena eta laugarrena. Bestetik, bigarren paragrafoan aldatu dena letra lodiz nabarmendu da. Lehenengo paragrafoa eta bostgarrena bere horretan mantentzen dira.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

149. artikulua. Ikerketa batzordeak.

Ikerketa batzordeak batzorde aldi baterakoak dira, eta gehiengo absolutuz sortzen dira Alkatetzak, Tokiko Gobernu Batzarrak edo gutxienez zuzenbideko zinegotzien herenak batzen dituzten bi udal taldek proposaturik.

Ondorioak irizpen batean jasoko dituzte, eta Udalbatzak irizpena eztabaidatu eta bozkatu beharko du.

150. artikulua. Ponentziak.

Eskudun batzordeak hala erabakita, gai jakinen bat analizatu eta aztertzeko ponentzia eratu liteke.

Sorrera erabakian ponentziaren langaia, iraupena, osaketa eta funtzionamendu araubidea zehaztuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria. Auzian ordezkatzeta eta defendatzeta.

Udal Lege Aholkularitzak Udala auzian ordezkatzeko eta defendatzeko du Udalbatzaren eginengatik.

Bigarren xedapen gehigarria. Herritar partaidetza.

Herritarrek Udalbatzan eta udalbatzaren batzordeetan parte hartuko dute **Herritarren Partaidetzaren Araudi Organikoak eta Udalbatzaren araudi** honek ebatzitakoaren arabera.

* 2014-03-27ko Udalbatzako akordioaren ondorioz, letra lodiz jartzen da egindako aldaketa.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/09/e1403309.htm>

Hirugarren xedapen gehigarria. Ebazpenak.

Udalbatzaren lehendakariak, Udalbatzaren idazkari nagusiak txostena eman ondoren eta Bozeramaleen Batzordeari kontsulta egindakoa, honako araudi hau interpretatzeko eta aplikatzeko ebazpenak eman litzake.

Laugarren xedapen gehigarria. Bilkura Egunerokoa.

Bilkura Egunerokoa benetan abiarazten ez den bitartean, osoko bilkuren aktek saio grabatuaren transkripzioa jasoko dute, baita erabakiak, bozketak eta gorabeherak ere. Batzordeen bilkura aktek erabakiak, bozketak eta botoaren zergatikoaren azalpenak labur jasoko dituzte, baita aurkezten diren ekimenen erabilera ere.

Bosgarren xedapen gehigarria. Toki erakundeen antolamendu, funtzionamendu eta erregimen juridikoaren Araudia aplikatzea

Azaroaren 28an onartutako 2.568/1986 Errege Dekretuak onartutako toki erakundeen antolamendu, funtzionamendu eta erregimen juridikoaren Araudiko xedapenak honako arau hau osatzeko aplikatuko dira.

Seigarren xedapen gehigarria. Udalez gaindiko entitateak.

Udalbatzaren idazkari nagusiak nazio gaikuntzako eginkizunak udala partaide duten udalez gaindiko erakundeetan erabiltzeari dagokionez, nazio gaikuntzako funtzionarioen gainean unean-unean indarrean diren araubide bereziak beteko dira.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Administrazio kontseiluak.

Udalbatzak aurretik baimendurik eta Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren arduradunak onartuta, idazkaria udal baltzuetako, udal partaidetzako baltzuetako edo tokiko enpresa erakunde publikoetako administrazio kontseiluetako idazkari izenda lezakete.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen xedapen iragankorra. Zereginak betetzea.

Kendu egiten da

Bigarren xedapen iragankorra. Batzorde iraunkorren lehendakaria eta lehendakariordea

Arau hau indarrean sartzen denean, batzorde iraunkor bakoitzaren lehendakaria eta lehendakariordea izendatu beharko dituzte lehenengo bilkuran.

XEDAPEN INDAR-KENTZAILE BAKARRA

Honako araudi hau indarrean sartzen denetik, indargabeturik geratzeko dira Donostiako Udalaren xedapenak baldin eta haren aurka badoaz, kontraesanik badute edo bateraezin gertatzen badira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Jakinaraztea, argitaratzea eta indarrean sartzea.

1. Oinarri hartuta apirilaren toki araubidearen oinarrien 2ko 7/1985 Legeko 56.1, 65.2 eta 70.2 artikulak, araudi hau argitaratuko eta indarrean sartuko da honela:

a) Honako araudi hau behin betiko onartu dela Estatuaren Administrazioari eta Autonomia Erkidegoaren Administrazioari jakinaraziko dizkie.

b) Jakinarazpena jaso eta handik hamabost egunera, erabakia eta araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

c) Araudiak indarra Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du.